

# ai kor!

txorierriko  karia



Goio Polo Martinez

**Sondikako  
eskolazaina**



**aikor!**

Jarraitu Aikor! Gizarte sareetan



-  4 Iritziak
-  5 Laburrak
-  10 Euskararen Eguna
-  12 Gurean izan da... Niala Magoa
-  14 Gaztea eta... Sara Iratzagorria
-  16 Menditik patxadaz... *Loberak*
-  18 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  20 Gai nagusia... Goio Polo Martinez
-  24 Gabonetako egitarauak
-  30 Elkarreak... Hori Bai
-  32 Emaus Fundazioa
-  33 Herbarioa... Horma-belarra
-  34 Teknologia... Orratzik ez, eskerrik asko!
-  35 Denborapasa
-  36 Sukaldaritza



10 Euskararen Eguna



24 Gabonetako egitarauak



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



diruz lagundutako aldizkaria



**Argitaratzailea:** TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta eta Tximintx komunitatea)  
944 523 447 / 688 864 135 / 747 406 561  
aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus

**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:** Itxaso Marina

**Maketatzailea eta erredaktorea:** Nahia Coello

**Kolaboratzaileak:** Imanol Alvarez, Gaizka Peñafiel, @txiribita\_mundi, Juanjo Ortiz, Joanes Camara, Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Mentxa

**Zuzentzaileak:** Iñaki Astorkiza

**Publizitatea:** Amaia Lekue (688 782 642)

**Banaketa:** Eragin

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 8.000

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik

# Zaintzaren zaintzaz

**F**untsezkoa den zaintzen antolaketa-  
ren gaineko eztabaida gutxietsi  
barik, azaroko greba feministak  
zabalduetako atetik sartu nahi dut, kasu  
honetan “nola” estrukturaletik “nola”  
per-tsonalera salto egiteko. Elikatzea  
edo lo egitea bezain garrantzitsua da  
ongizate emozionalerako zaintza; eremu  
pertsonalean eta sozialean, elkarreragin  
saihestezinean dauden “nia” eta “besteak”  
lotzen dituen armiarma-sarea. Baina ga-  
rrantzitsua bezain gatazkatsua ere bada  
zaintza, normalean arazoa borondate  
falta ez den arren, hamaika buruhauste  
sortzen dizkigu eta. Nik bat ez datorren  
zerbait dagoen susmoa dut gai honetan;  
“Pertsonak helburu” lelopean, gu geu  
bankuetako iragarkiek nahita zeharkatzen  
ez duten gainazaleko geruzan geratu izan  
bagina bezala. Merezki du ideari buelta  
pare bat ematea, benetan zaindu nahi  
dugun hori, behintzat, bidean galdu ez  
dadin.

Nirera ekarrita, Haur filosofia metodo-  
logiaren hiru helburu nagusietako bi dira  
pentsamendu arretatsua eta kritikoaren  
sustapena. Lehena lotuta dago gure ingu-

*“Egonkortasuna,  
koherentzia eta  
arrazoizkotasuna  
dira gure buruari eta  
inguruan dugunei  
eskaini ahal diegun  
oinarrizko zaintza”*

rukoek adierazten duguna nola jasoko  
duten kontuan hartzearekin: esaten  
duguna eta isiltzen duguna, moduak,  
momentuak... tentuz aukeratzearekin,  
alegia. Bigarrena, estruktura logiko eta  
koherente bat duen pentsamendurekin:  
euren artean kontrajartzen ez diren zen-  
tuzko arazoiketak egitearekin, funtsean.  
Zaintzaren eremua arretaren esparrura  
mugatu dugula iruditzen zait baina, ha-  
ren oinarrian dagoen pertsonen arteko za-  
intza estrukturalaz ahaztuta; biluzik doan  
erregearen ipuinean, kapela, bufanda eta  
eskularruak jarri, eta orain jantzita doala  
esango bagenu bezala. Egonkortasuna,  
koherentzia eta arrazoizkotasuna dira gure  
buruari eta inguruan dugunei eskaini ahal  
diegun lehen zaintza, oinarritzko zaintza.

Psikologiatik datorren ardura afekti-  
boaren kontzeptuak argi pixka bat eman  
diezagukeela deritzot. Egin eta esaten  
dugun guztiak eragin bat du besteengan  
eta horretaz kontzientzia hartzea da lehen  
pausua; hortik eratorrita, bigarrena da egi-  
ten dugunak sortzen dituen zentsuzko  
ondorioen kargu egitea. Kontua ez da in-  
gurukoen erreakzioen erantzukizuna gu-  
re gain % 100ean hartzea, edo beti, ezta  
aurrean dugunon judizioak gure jarduna  
determinatzea: hori kontrako muturrera  
joatea litzateke. Kontua da, behintzat  
norbere parametroetatik, gure jarrera  
aztertzea eta modurik zaintzaleenean ku-  
deatzeko ahalegina egitea, moduetatik  
harago zenbait faktore kontuan hartuta,  
hala nola arrazoizkotasuna eta koherentzia.

Hori guztia lurrera ekarrita, hiru adi-  
bide. Lehena: antolakuntza sendorik eta  
justurik ez dagoen lantaldean ezer gutxi  
lortuko dugu hitz gozo eta mezu opti-



**IMANOL ALVAREZ**  
Filosofia irakaslea

mistekin; gabonsariak ez du urte osoa  
konpontzen. Bigarrena: harreman pertso-  
naletan munduko arreta guztiak ez ditu  
ezegonkortasuna edo mezu kontraesan-  
korren zauriak ekidingo. Maitasun harre-  
manetan edo umeen heziketan erraz  
ikusi ohi dira zaintza estruktural honen  
gabeziaren ondorioak. Hirugarrena: arazo  
bera norbere buruarengan ere topatzen  
dugu, zaintzen ez gaituzten lekuetan  
sarritan gu geu geratzen gara eta.

Era berean, esango nuke kasu guztie-  
tan egiten dugunak esaten dugunak  
baino gehiago balio duela, baita horien  
bien arteko koherentzia oso garrantzitsua  
dela ere. Gaztelaniazko atsotitzak dionez,  
“ez esan maite nauzula; maitatu nazazu,  
konturatuko naiz eta”. Maitatu eta esan,  
gehiegi eskatzea ez bada. Gure burua eta  
besteak zaindu ditzagun, beraz; zaindu  
ditzagun hitzak eta moduak, baina ez de-  
zagun ahaztu zuhaitza enborretik hasten  
dela. Bestela, praka, alkandora eta jer-  
terrik gabe, hotzez hilko zaigu erregea.

**PsikoNeuro**  
TXORIERRI

Psikologia eta Neuropsikologia

Derioko Seminarioa, A eraikuntza 3. solairuan

611 172 488  
psikoneurotxorierri@gmail.com  
@psikoneuro\_txorierri

**Alaia**

fruta-denda

Etxez etxeko zerbitzua  
Bertoko produktuak

Taller, 5  
48170 Zamudio  
946 850 585

Txinbo kalea, 9  
48170 ZAMUDIO  
94 452 26 75

**BIDE-GORRI**

Askotariko pinboak - Plater konbinatuak  
8:00etatik irekia  
WIFI gunea



## 5,2 milioi euroko aurrekontua onartu du Loiuak



Josu Andoni Begoña Loiu alkateak bere webgunean jakinarazi duenez, 5.200.000 euroko aurrekontua onartu dute 2024rako. Begoñaren hitzetan, aurrekontuek % 2,65eko igoera izango dute aurtengo aurrekontuekin alderatuta, eta gizarte-laguntzetara zuzendutako diru-partida "nabarmen handituko da". "Aurrekontu bikainak, arduratsuak, serioak eta errealistak dira, gizarte-profila dutenak eta Loiuako garapenerako beharrezkoak diren inbertsioen alde egiten dutenak", idatzi du.

Azaldutakoaren arabera, aurrekontuei esker inbertsioak egin ahalko dira udalerriko auzoetan. Inbertsio horien artean aipatzekoak dira Zabaloetxeko

errotondak, Lauroetako haurreskolaren inguruan egin beharreko urbanizatze-lanak, Zabaloetxeko eta Larrondoko gimnasioak, Ariztondo-Txiline sektorea berriro partzelatzea babes ofizialeko etxebizitzetara begira, Larrondoko Gazteleku, III. Enplegu Plana eta kultura eta kirola dinamizatzeko plana.

"Helburua Loiu erakargarri, moderno eta jasangarri baten alde lan egiten jarraitzea da", idatzi du Begoña. "Hala ere, euste-aurrekontuak ere badira, nazioarteko egoera eta datu makro-ekonomikoei lotutako ziurgabetasuna direla eta. Hortaz, lehenengo eta behin pertsonen alde egiten dugu, herritarren oinarriko beharrezkoak betetzeko. Izan ere, gizarte-laguntzetarako diru-partida handituko dugu Mankomunitatearen eta enplegu-planen bidez, herritarrek eskatzen dituzten proiektu estrategikoak ahaztu barik". Bestalde, iragarri du elkarte guztientzako dirulaguntzak % 50 igoko direla, eta euskararako, emakumeenganako eta berdintasunerako diru-partida ere handituko dela.

Begoñaren hitzetan, EAJK aurrekontuen aldeko botoa eman du, EH Bildu abstenitu da eta PPK aurrekontuen kontra bozkatu du.

## Ibaiondo futbol-zelaiko harmailetako eserlekuak berritu ditu Derioko Udalak

Derioko Udalak prentsa-ohar baten bidez jakinarazi duenez, hondatuta edo egoera txarrean zeuden 375 eserleku baino gehiago ordezkatu ditu Ibaiondo futbol-zelaian. Horien ordez, "ergonomikoagoak, erosoagoak eta erresistenteagoak" diren beste batzuk ipini dira. Udalak 5.000 euro ipini ditu eserlekuak aldatzeko.

"Udalerriko kirol-azpiegiturak eta eremuak hobetzen jarraitzeko konpromisoari eusten diogu. Kirolaren aldeko apustua egiten jarraitzen dugu, eta herriko klub, elkarte eta kirolarien eskutik egingo dugu, bidelagun beti", adierazi du prentsa-oharraren bidez Esther Apra-iz Derioko alkateak. CD Derio 1977an sortu zen, eta udalak utzitako Ibaiondo futbol-zelaia erabiltzen dute klubeko taldeek. Gaur egun, emakumeen eta gizonen 23 taldek entrenatu eta jokatzeko bertan, 300 jokalarik baino gehiagok.



**TOLDOS TXORIERRI**  
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak  
Sareak  
Eguzki-ohialak  
Alokatzeko lonak

Torrelarragoiti ind, P2  
48170 Zamudio  
Tel.: 94 452 12 58  
Faxa: 94 452 07 44  
Gasolindegi ondoan



**ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA**

Santi Mami auzoa, 1  
Tel.: 94 454 10 06  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)



Centro Dental  
**Txorierri**

Rocío Astorkia Bordegaray  
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella  
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández  
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika  
(geltoki aurrean)  
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885  
www.cdtxorierri.es

**ORTODONCIA21**

## Artxandako tunelak modernizatzeko lanak ekain aldera hasiko dira



Imanol Pradales Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako diputatuak jakinarazi duenez, lizitaziora atera dira Artxandako tunelak konpontzeko eta modernizatzeko lanak. Bizkaiko Foru Aldundiak 17,5 milioi euro zuzenduko ditu lanetara eta espero da ekainean hastea. Konpontze-lanak zatika eta jarraian egingo dira: lehenengo, Ugasko eta La Salve lotzen dituen tunelean; gero, Ugasko eta Txorierri lotzen dituen tuneletan;

eta azkenik, La Salve eta Txorierri lotzen dituen.

Azpiegitura 2002an ipini zen mar-txan. "Estrategikoa da hiriburuaren inguruko mugikortasunerako, Bilbo lotzen baitu Txorierriekin, aireportuarekin eta Bizkaiko Teknologia Parkearekin". Egunero batez beste 30.000 ibilgailuk erabiltzen dituzte tunelak: Ugasko-La Salve, 8.194 ibilgailuk; Ugasko-Txorierri, 5.926k; eta La Salve-Txorierri, 15.709k.

Diputatuaren esanetan, azken urteetan hainbat auditoretzatan eta azterlanean jaso da azpiegitura konpontzeko beharra. "Patologia batzuk ikusi dira antzinatasungatik eta erabilera intentsibogatik, hala nola pitzadura txikiak, hezetasuna eta narriadurak estaldurako hormigoietan. Gainera, 20 urte hauetan teknologia zaharkituz joan da eta beharrezkoa da hura azken segurtasun-arauetara egokitzea". Bestalde, jarduketa konplexua dela azpimarratu du. "Denbora luze eman dugu gaiari nola heldu aztertzen, harik eta jarduketa-plana eduki dugun arte, tunelak konpontzeko beharizari kostuan eta epean erantzun orekatua eman ahal izateko, betiere erabiltzaileen segurtasuna arriskuan jarri gabe eta kalteak gutxituta".

Tunel bakoitza erabat itxiko da hilabetez, obra-fase bakoitzaren hasieran. Ondoren, lanak gauez eta asteburuetan egingo dira, "eraginak ahalik eta gehien murrizteko eta inbertsioaren kostuak eta denborak optimizatzeko".

Derioko Udalak argazki-lehiaketa antolatu du bere hiru gizarte-sareetan: Facebook, Instagram eta X (lehen Twitter). Herriko Plazan desioen zuhaitza ipini da eta bertan baseritarrez jantzita argazkia ateratzen duten herritarren artean sariak banatuko ditu. Parte-hartzaileek argazkiak esandako hiru sare sozialetara igo beharko dituzte argazkiak #JantziDerio traola erabiltuta. Udalak sarrerak zozketatuko ditu hiru egitasmo hauetarako: Biwak (eskalada), Jamyrad (jolas-parkea) eta Gurea Aretoa. Argazkiak urtarrilaren 5era arte igo daitezke gizarte-sareetara.



**GORBEIA MERTZERIA**

Gorbosa kalea, 7  
ZAMUDIO  
94 655 90 06

**Arteaga ESTANKOA**

Mungialde etorbidea, 12 - 48160 Derio  
Tel: 94 454 15 41  
estancoderio@gmail.com

Zorionak eta urte berri on

## San Silvestre gaueko lasterketa egingo da lehen aldiz Loiuun

Loiuko Udalak antolatuta, eta Beste Bira Loiu atletismo-klubarekin elkarlanean, abenduaren 30ean San Silvestre gaueko lasterketa egingo da lehen aldiz Loiuun. Herri-lasterketaz gainera, umeentzako eta gaztetxoentzako zazpi lasterketa izango dira 18:00etatik aurrera. Izena ematea kirolprobak.com webgunean egin daiteke abenduaren 29ko 12:00ak arte; gainera, lasterketaren egunean bertan ere, 17:00ak arte, izena emateko aukera egongo da.

Beste Bira klubak azaldu duenez, adin guztietako lasterkarietarako probak izango dira, eta lasterketetan korrikalari federatuek zein herri-korrikalariak hartu ahaliko dute parte. Izena emateak bost euro balio du herri-lasterketan, eta doakoa da beheko kategorietan.

Eskola-kategoriei dagokionez, benjamin/aurrebenjamin F kategoriako lasterketa 18:00etan hasiko da, eta parte-hartzaileek 350 metro (buelta bat) egin beharko dituzte; benjamin/aurrebenjamin M kategoriako lasterkariak ere 350 metro egin beharko dituzte eta euren proba 18:05ean hasiko da. Kimu F eta kimu M kategorietakoak 18:10ean edukiko dute lasterketa eta 700 metro (bi buelta) egin beharko dituzte. Haur F eta Haur M kategorietako lasterketa,

bestalde, 1.050 metrokoa izango da, eta 18:20an hasiko da. Txikiek, azkenik, 100 metroko lasterketa egingo dute 18:55etik aurrera. Azken kategoria horretan izan ezik, gainerako guztietan trofeoa jasoko dute lehenengo hiru mutilek eta lehenengo hiru neskek.

### Herri-lasterketa

Herri-lasterketa 19:00etan hasiko da eta hurrengo kategoria hauek egongo dira: 16 urtez azpikoa, 18 urtez azpikoa, 20 urtez azpikoa, beteranoak (>40 urte) eta absolutua. Lau kilometroko lasterketa izango da eta korrikalariak Loiu herri-gunetik aterako dira, Zamarripa auzotik pasatu, eta herrigunera itzuliko dira.

Kategoria guztietan saria jasoko dute lehenengo hiru emakumeek eta lehenengo hiru gizonek. Kategoria absolutuko irabazleek 150 euro eta trofeoa jasoko dituzte sarizat; 100 euro eta trofeoa, bigarrenek; eta 50 euro eta trofeoa, hirugarrenek. Beteranoen kategoriako sariak hauek izango dira: 50 euro eta trofeoa, irabazleentzat; 30 euro eta trofeoa, bigarrenentzat; eta 20 euro eta trofeoa, hirugarrenentzat. Gainerako kategorietako irabazleek trofeo bana jasoko dute. Trofeoak Amaia Piedra nazioarteko atletak Beste Bira klubari emandakoak dira.

## Ibilgailu elektrikoak kargatzeko zazpi gune atondu dira Derion

Derioko Udalak zabaldu duenez, ibilgailu elektrikoak kargatzeko makinak leku hauetan ipini dira: Kultur Birikan, kiroldegiko aparkalekuan, eskolako aparkalekuan, Euskalherria kalean, Aldekoan, Ganben eta Errekatxuetan. Zerbitzua erabiltzeko, Cable Energia aplikazioa deskargatu behar da, eta erabiltzaileari, ibilgailuari eta ordainketa-metodoari buruzko informazioa adierazi. Izena eman ondoren, karga-prozesua hasi daiteke, hori zein gunetan egingo den aukeratuta. Nolanahi ere, erabiltzaileentzako eskuliburua [www.derio.eus](http://www.derio.eus) webgunean dago eskuragarri.

“Proiektu honek hiru helburu ditu”, adierazi du Esther Apraiz alkateak. “Bate-tik, mota horretako autoak gure herrian kargatzeko aukera errazten dugu. Bestetik, emisio kutsatzaile eta zarata gutxiko mugikortasuna bultzatzen dugu; horrela, herri-eredu iraunkor eta ingurumena gehiago errespetatzen duen herri-eredu jasangarri baten aldeko konpromisoa indartzen dugu”.



**Zorionak eta Urte Berri On**

**Liliak Loradenda**

www.liliak.net  
facebook: liliak loradenda  
amaiarementoria@euskalnet.net

Erdiko Kalea, 2 • DERIO  
94 454 12 23

**nexis.es**

**Zuntza 19,90 €-tik** Hilean BEZ barne

Zuntza 100 Mb - Altareko kutsa 152 € bez barne edo 33,00 € / hilero bez barne lehenengo urtean

**INFORMAZIO BILA ETORTZEN BAZARA, OPARITXO BAT JASOKO DUZU KONTRATATZEN BADUZU, OPARIA JASOKO DUZU MOZTU IRAGARKI HAU ETA HURBILDU ZAITEZ SONDIKARA, ITURRIGANE 1ERA**

**946941000 / nexis@nexis.es**

**Euskal operadore alternatiboa**



### WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

**Kepa Ganuza** da abenduko irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birentzako bazkaria jasoko du saritzat. WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.



## Deriok 50.000 euro bideratu ditu zenbait landa-bide hobetzera

Derioko Udalak jakinarazi duenez, hobetze-lanak egin dituzte San Kristobaleko, Larrabarriko eta Santo Domingoko landa-bideetan. Udalak 50.253 euro zuzendu ditu esandako bideetan konpontze- eta mantentze-lanak egitera. "Helburua da herritarrei oro har eta landa-auzoetan bizi diren pertsoneri beharrezko hornidurak eta azpiegiturak eskaintzea, udalerriri irisgarriagoa, seguragoa eta zainduagoa izan dadin", zabaldu dute prentsa-ohar baten bidez.

Azaldutakoaren arabera, denboraren poderioz kaltetuz joan diren eremuak eta bideak garbitu dira, eta berriz asfaltatu, zuloak konpontzeko eta irisgarritasuna hobetzeko. "Jarduera hauei esker, asfaltoaren egoera txarrarekin lotutako istripuak ere saihestuko dira".



## Xabier Atxutegi, Bizkaiko txapeliduna

Xabier Atxutegi zamudioztarrak Bizkaiko Kluben Arteko Txapelketa irabazi du gazteen kategoriaren hirugarren mailan, Aimar Gomez bikotekidea zuela. Basuriko Bidebieta klubeko pilotariak 20 eta 22 irabazi zieten Olaburu 6 klubeko Solagureni eta Ortiz de Zaratei, oso partida lehiatsu batean. Lehenengo aldia da Atxutegik halako final bat irabazten duena, eta hortaz, pozik azaldu da. "Egia esan, finalaren aurreko partida guztiak gogorrak izan dira eta nabaritzen zen parte-hartzaile guztiak maila ona zutela", esan digu. Atxutegi atzelaria da eta aitortu du kostatu zitzaizela arerioen jokora ohitzea. "Zortzi eta zero galduz joaten ginen, baina azkenean euren jokoari ho-

betu aurre egiteko modua topatu nuen. Aimar, bestalde, ondo eta segurua ibili zen, eta tantu bat galtzen genuen bakoitzean esaten zidan ez zuela inporta, zerotik hasiko ginela... Apurka-apurka lasaituz joan ginen, eta azkenean emaitzari buelta ematea lortu genuen".

Zamudioztarra bost urte zituela hasi zen pilotan jokatzeko, herriko klubean. Duela pare bat urtetik hona Bidebieta klubeko pilotaria da. Aipatu digu momentuz ez duela oso helburu handirik. "Nagoen lekuan egoten jarraitu nahi dut, eta pilotan jokatu". Nolanahi ere, urtarrean Baqué txapelketa hasiko da eta bertan hartuko du parte. Azkenik, hurrengo kezka hau adierazi digu zamudioztarrak: "Lehen, pilota-partidak an-

tolatzen ziren Zamudioko jaietan, baina urte batzuk dira ez direla antolatzen. Ea herriko jaietan berriro pilotaz gozatzeko aukera dugun!".



**Ule-apaindegia**  
M<sup>a</sup> Antonia Llodio  
Txorierriko etorbidea, 6  
Tel.: 94 452 02 70  
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

L. LEIZOLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)  
946 522 857  
**OK**  
**OAKLAND**  
ENGLISH

LEIRE BEGOÑA  
**ULE-APAINDEGIA**  
MUNCHALDE ETORBIDEA, 20  
48160 DERIO  
94 454 26 32  
Jartu lezagu Facebook-en



# Kalera, zaintza-sistema publikoaren eta komunitarioaren alde

Euskal Herriko mugimendu feministak deituta, greba feminista orokorra izan zen azaroaren 30ean, zaintza-sistema publikoa eta komunitarioa aldarrikatzeko. Txorierriin ere eragina izan zuen deialdiak, batez ere hezkuntzan. Txorierriko mugimendu feministak balorazio positiboa egin du. "Egin ditugun deialdietan jende askok parte hartu du eta gure errebindikazio guztiak Txorierriko enpresa, komertzio, taberna eta etxe guztietara heldu dira".

Txorierriko mugimendu feministak auto-karabana antolatu zuen goizean eta horretan 60 autok baino gehiagok hartu zuen parte; auto-karabanaren ondorioz, trafikoa moteldu zen. Informazio-piketeak izan ziren, eta Zamudion edukiontziak ere irauli ziren errepidean. Bestalde, auto-karabanak geldialdia egin zuen Sondikako eta Zamudioko zahar-egoitzetan eta hango langileei lore-sortak eman zizkieten elkartasuna adierazteko. Era berean, txistu egin zuten Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen egoitzaren aurrean, etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren (SAD) langileen

egoera salatzeke, haiei elkartasuna adierazteko, SAD zerbitzu-publikoa eskatzeko eta zaintzekin negoziarik ez egitea aldarrikatzeko. Ekitaldi nagusia Larrabetzun egin zuten. Bertan, hainbat lagun batu ziren elkarretaratzea egiteko; manifestazioa ere egin zuten zaintza-sistema publikoaren eta komunitarioaren alde.

Arratsaldean manifestazio jendetsua izan zen Bilbon. Euskal Herriko mugimendu feministaren kideen esanetan, egun historikoa izan zen atzokoa eta instituzioak premiatu zituzten sektoreen arteko mahaia osatzera zaintzen arazoari premiaz heltzeko.



# LASARTE

## HORTZ KLINIKA

Padi, Inplanteak, Ortodontzia,  
Hortz estetika, Peridontzia

📍 Askatasuna 5, Mungia

☎ 946 020 020    📷 @lasartehortzklínika



# Euskara, guztiona

Abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatu genuen, eta Altzora Sondikako euskara elkartearekin elkarlanean, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak ha-inbat ekintza antolatu zituen, euskara guztiona dela eta guztiok aldarrikatu eta bultzatu behar dugula aldarrikatzeko. Asteazkenean, eskoletako eta institutuko ikasleentzako ikuskizunak antolatu ziren, hala nola antzezlanak, euskaraokea eta elkarrizketa musikatuak. Asteburuan, bestalde, publiko orokorrarentzako ekitaldiak izan ziren: bertso-saioa, Taberna Ibiltaria, Zuhaitz Gurrutxagaren *Futbolistok* bakarrizketa eta Niala magoaren ikusizuna.




**Ospatu gurekin  
Gabonetako kotillioiak**

Abenduak 24  
Abenduak 31  
Urtarrilak 5

Errementeiri, 8  
48150 SONDIKA  
944 532 592  
652 732 584

X Koltza Plaza, 2-4 D  
48160 Derio (Bizkaia)  
Tel: 944 54 27 19

**Estudios 10 Ikastegia**

Pakearen Plaza, 3 - behea  
48160 Derio (Bizkaia)  
Tel: 944 54 50 19



**Baserritarren Alkartea  
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS  
48196 LEZAMA  
☎ 94 455 60 16  
e-mail: lezama@fcae.org  
Bazkideak: 144

**Pentsu naturalak**





Urtarrilak 14

**ATE  
IREKIAK**

TEL.: 944 56 02 64  
IDAZKARIA@EGUZKIBEGI.NET



**EGUZKIBEGI  
IKASTOLA**



*t: Itxaso Marina / a: Inaki Landa Fuentes*

### **Zelan irten zen Sondikako saioa?**

Oso ondo. Gurasoek askotan laguntzen didate magia-saioetara, eta denok esan genuen beharbada azken urteetako saiorik onena izan zela; bai nire aldetik, bai lekuaren eta publikoaren aldetik. Gainera, tailerra egin genuen eta hura ere oso ondo irten zen; hain ondo, ezen, hainbeste ume zeudenez, azkenean bi tailer antolatu behar izan genituen. Umeek oso ondo pasatzen dute tailerretan, baina gurasoek ere bai, azkenean truku pare bat ikasten dute eta. Bueno, egia esan, ez dakit hobeto nortzuek pasatzen duten: umeek edo gurasoek (kar-kar).

### **Sasoian daude magia-ikuskizunak?**

Nire sentazioa hurrengo hau da: umeek beti dute magia-ikuskizunak ikusteko gogoia eta ilusioa, baina gazteek eta helduek, berriz, ez dute interes hori azaltzen. Horrek pena handia ematen dit, nire ustez, magia garrantzitsuagoa baita helduentzat umeentzat baino. Izan ere, umeak etengabe dabilta ikasten eta deskubritzen, eta, ondorioz, egunerokotasunean askotan bizi izaten dute magia-sentazioa. Helduok, ordea, ohituta gaude egunerokotasunera eta ez ditugu umeen sentazio horiek bizi izaten... Nik esango nuke Euskal Herrian orokorrean ez dela gertuko magia asko ikusten. Nolanahi ere, egia da umeentzako ikuskizun asko egiten direla, baina ez hainbeste nagusientzat.

### **Nagusiak konbentzitzea gehiago kostatzen da?**

Nire iritziz, umeak zein helduak trukua deskubritzeko asmoarekin etortzen dira magia-ikuskizunetara. Baina, jakina, ume batzuek berez sinesten dute magian, eta beste batzuk truku on pare bat ikusita hasten dira sinesten. Gurasoak, bestalde, magoa jatorra dela eta haien lepotik barre egiteko agertokira ateraraziko ez zituela ikusita hasten dira animatzen (kar-kar); eta ulertzekoa da, arreta berenga-

*“Umeek beti dute magia-ikuskizunak ikusteko ilusioa; helduek, berriz, ez dute interes hori azaltzen”*

# “Magia garrantzitsuagoa”

NIALA | magoa

Alain Zulaika Niala magoa da, eta abenduan familiako ikuskizuna egin zuen Sondikako Kultur Etxean, Euskararen Eguna dela-eta antolatutako egitarauaren baitan. Bere trukuak jakinarazi ez badizkigu ere, luze mintzatu gara bere grinaz, magiaz.



# a da helduentzat umeentzat baino”

natzea gustatzen ez bazaie. Dena dela, gertuko magian, adibidez, ez da parte hartzeko arazorik izaten, mundu guztia eroso sentitzen da eta. Gainera, magoook baditugu gure moduak jendea erakartzeko.

*“Enpatia oso garrantzitsua da magian eta magoook pertzepzioekin jolasten gara”*

## **Psikologia ere erabiltzen duzue?**

Pixka bat bai. Azken batean, enpatia oso garrantzitsua da magian eta magoook pertzepzioekin jolasten gara. Egia ez den irudia edo eszenarioa sortzen dugu poliki-poliki, eta ikusleak pentsatzen du gauza bat ikusten dabilela, baina horren atzetik tranpak daude. Gu horrekin jolasten gara, eta ezinezkoak sortzen saiatu.

## **Zein formatutan sentitzen zara gusturen?**

Bizitzaren momentuaren arabera. Hala ere, argi daukat gertuko magiak gainerako formatuek ez duten indarra duela. Adibidez, eszenatokiko magia oso interesgarria, dibertigarria eta ikusgarria da, eta soinuarekin eta argiekin jolasteko aukera ematen du. Baina gertuko magia, zure eskuetan gertatzen dena, ezin hobea da. Magia hori egiten dudanean, jendeak beti esaten du «*Nola liteke? Ni hemen nago eta!*». Gehien entzuten dudana da «*Ostia! Zein kabroia!*» (kar-kar).

## **Lur orotako magoa zara.**

Inertziak poliki-poliki eraman nau hara. Lehen magia-saioa 12 urte nituela egin nuen, anaiaren urtebetetze-festan, taberna batean. Ondoren, beste taberna batetik deitu zidaten bertan magia-saioa egiteko; eta ondoren, eszenatokiko saioa egiteko... Kalean ere magia egin daitekeela ikusi nuen, eta kaleko saioak prestatu nituen; enpresetarako ikuskizunak ere bai...



*“Gertuko magia, zure eskuetan gertatzen dena, ezin hobea da”*

## **Magia opari**

Gazte elgoibartarrak txikitan osabak magia-ikuskizunetara eramaten zuela du gogoan, eta noizbait Magia Borrás jolasa oparitu ziotela. Hala ere, buruan fresko-fresko du Txan magoak agertokira atera zuen eguna; zortzi urte zituen. “Gauza zen agertokian zegoen pertsonarentzako trukua zela; hau da, Txan magoak objektuak desagerrarazten zituen nire buruaren gainetik eta, nik izan ezik, gainerako guztiek trukua ikusten zuten. Baina nik truku hori aurretik nuen ikusita eta banekien nola egiten zuen; hala ere, ez nuen ezer esan, Txan magoari ikuskizuna ez hondatzeko eta publikoak ondo pasatu zezan”.

Ondoren, 12 urterekin, Oliver magoaren magia-udalekuetara joan zen Gatikara. “Egunero mago bat etortzen

zen eta saioa egiten zuen eta trukuak ikasten genituen. Etxera itzuli nintzenean magoak izan nahi nuela esan nien gurasoei”. Hurrezkeroko mago moduan trebatzen hasi zen, eta horretarako, hainbat liburu irakurtzen, eta Interneten informazioa bilatzen eta bideoak ikusten. Era berean, lehen Bilbon zegoen magoaren eskolan ikasi zuen. “Kongresuetara eta jaialdietara joanda ere izugarri ikasten da, bes-te mago batzuekin geldituta, haiengandik ikasita... Ispiluaren aurrean ere orduak eta orduak eman behar dira trukuak lantzen. Orain, adibidez, ez ditut kartak hainbeste erabiltzen, baina gogoratzen dut gaztetxo nintzela ez nuela ezta egun bakar bat ere ematen, eskuetan kartak izan barik”. Magoek etengabe berri behar dituzte ikuskizunak eta trukuak. “Juan Tamariz handiak, 81 urte dituenak, dio oraindik jarraitzen duela ikasten; beraz, pentsa ezazue, gazteok! Hasieran gainerako magoengandik ikasiz joaten da, haiek imitatzen, eta pixkanaka-pixkanaka norbera bere bertsioak, trukuak... sortzen hasten da”.

Magiak erabat harrapatuta du gaztea. “Alde batetik, polita da guztien arreta zeureganatzea; eta bestetik, magia oparizat jotzen dut, eta, nire ustez, jendea magia, esperientzia ezberdin bat, oparitzea baino ederragorik ez dago”. Hurrengo egunetan magiaz beteta etorriko dira eta Niala magoaren ikuskizuna gozatzeko aukera egongo da hainbat herritan; Aulestin eta Getxon, haien artean.



# “Anbiguotasunak erakartzen

SARA IRATZAGORRIA | sortzailea

Derioko Marikobaso Espazioak egonaldi artistikoak egiteko deialdia zabaldu zuen urrian, eta lehenengo edizioaren irabazlea Sara Iratzagorria Amondarain derioztar gaztea izan da. Ekimenari esker, gazteak sei hilabetez erabili ahalko du Marikobasoko egoitza, bertan bere proiektu artistikoa jorratzeko. Arte Ederretako ikaslea dagoeneko badabil bertan lanean, jantzigintza-egitasmo bat egiten hain zuzen ere.

t: Itxaso Marina

**Zein da ekimenak egingo dizun ekarpen nagusia?**

Leku bat, minimo batzuekin lan egin ahal izateko. Orain arte nire logelan egin dut lan, baina ez da toki egokia; hemen bi mahai ditut, argitasun handiagoa, egoitza osoa erabili dezaket... Lan egiteko lekua behar nuen, eta beraz, pozik nago.

*“Ekimenak leku bat ekarri dit, minimo batzuekin lan egin ahal izateko; pozik nago”*

**Jantzigintzari lotutako egitasmoa lantzen zabilta Marikobason; zertan da?**

Diseinua eta sorkuntza ikasten nabil Arte Ederretako Fakultatean, eta bertan dugu diseinu grafikoa, zeramika, komikia, ilustrazioa..., baina ez jantzigintzarekin zerikusia duen irakasgairik. Hala ere, gure proiektu pertsonala garatzeko irakasgaia dugu, eta handik egitea pentsatu nuen. Zergatik jantzigintza? Bada, gaur egun *fast fashion* indarrean dagoelako: modan ipintzen diren jantziak etengabe kontsumitzen ditugu. Eta, nire ustez, galdu da norberaren gorputz-formara moldatutako arropa erosteko ohitura, eskuz egindako arropa erosteko ohitura. Nire gorputza oinarritzat hartuta, nire patrioiak sortzen hasi naiz, eta bukatzen dudanean, beste pertsona batzuen gorputzera egokituta egingo ditut. Izan ere, trapu zahar bat ere erabilita, jantzia norberaren neurria eginez gero, perfektu lotuko da. Bestalde,





# nau jantzigintzatik”

oihalak eta gauzak herriko dendetan edo denda txikietan erosten ditut; garrantzia ematen diot horri.

## Generorik gabeko arropa da, gainera.

Bai. Bilduma txikia egitea pentsatu dut, bospasei jantzi osatuta, jendeak ikus dezan, eta gero ikusiko dut nondik jarraitu. Liburua ere egin nahi dut, eta bertan egin-dako diseinuak jaso.

## Egunerokotasunean jantzeko moduko izango da?

Bai eta ez. Adibidez, gona bat egin dut eta egur-zati bat erabili dut bere mutur biak lotzeko; beraz, egunero jantzeko modukoa ez da, beharbada... Hala ere, hasieran pentsatzen nuen baino «ponibleagoa» dela esan beharra dago... Hurrengo egingo dudana jantzia izango da.

## Arte Ederretako ikaslea izanik, jantzigintzan duzu interesa; zergatik ez zenituen beste ikasketak batzuk aukeratu?

Egia esan, nahiko galduta nengoen zer ikasi aukeratzeko ordua ailegatu zitzaidan. Amak ere Arte Ederrak ikasi zituen eta berak animatu ninduen asebetetzen ninduten ikasketak egitera; pozik nago. Lau urteko hiru gradu ditugu aukeran: arte ederrak, diseinua eta zaharberritzea; baina lehen urte bietan hiru graduak batera daude. Ni hirugarren mailan nago gaur egun, diseinua egiten, eta arroparena berez etorri da. Bestalde, jostintza-tailerra egiten nabil Kultur Birikan; eta bitxigintza ere ikasten nabil.

## Argi dago, beraz, modan interes handia duzula.

Modan ez ezik hainbat arlotan ere badut interes handia. Esaterako, lehen aipatutako gonarako egurrezko orratza neuk egindakoa da, eta, batzuk aipatzearen, zeramikan eta argazkilaritzan ere interes handia dudanez, ahaleginduko naiz diziplina horiek jantzigintzara eramateko

*“Modan ez ezik hainbat arlotan ere badut interes handia; helburua da gustatzen zaizkidan arlo guztiak batzea”*

modua topatzen. Helburua da gustatzen zaizkidan arlo guztiak batzea.

## Zerk erakartzen zaitu jantzigintzatik?

Anbigutasunak. Jantzi bera mila modu ezberdinetan jantzi ahal dugu zuk eta biok. Jantzia oinarria da, baina ez du ezer definitzen. Gainera, jantzi batek historia luzea izan dezake atzean, eta lehen modan egondako jantziak gaur egun berriro modan ipini arren, beti egongo da alderdiren bat, detaileren bat, beste modu batean egingo dena.

## Lehen esandakoagatik argi utzi zaigu ez zarela fast fashion-en aldekoa.

Ulertzen dut hautu hori egitea, eskura dugulako eta merkea delako. Hala ere, moda horren atzean zer dagoen hausnartu

## Asmoak

Ahal dela, ikasketak kanpoan amaitzea gustatuko litzaioke, Mexikon hain zuzen. “Alde batetik, erakartzen nauen herria da; eta bestetik, hango unibertsitateetan jantzigintzarekin zerikusia duten irakasgaiak dituzte. Eskaera aurkeztu dut; ea hartzen nauten!”. Ikasketak amaitzen dituenean, jantzigintzan trebatzen jarraituko du. “Eta ahal dudana arlo guztietan. Egia esan, Euskal Herriko Unibertsitatean dauden masterrak ez zaizkit asko gustatzen; hortaz, saiatuko naiz kanpoan zerbait egiten. Bueno, ahal ditudan arlo guztiak ukitzeko asmoa dut, baina jantzigintza beti erdigunean egonda”. Marikobaso Espazioko ekimenak lanean hasteko lekua ekarri dio.

behar dugu, eta ez dut uste dagoena etikoa denik. Bigarren eskuko dendak ditugu inguruan eta bertan erosi dezakegu arropa merkea eta ona. Gainera, tokiko merkataritzaren eta denda txikien alde egin behar dugu, betiko galdu ez ditzagun.



*“Jantzi bera mila modu ezberdinetan jantzi ahal dugu zuk eta biok; oinarria da, baina ez du ezer definitzen”*

**electricidad derio elektrizitatea**  
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea  
Proiektuak eta material elektrikoaren salmenta  
Aizkorri Kalea, 1 - Telf / Fax: 94 454 31 48 - 48160 DERIO (Bizkaia)



# Loberak



Barrerilla loberako horma (Perex-Losa Bailara)



Anguloko San Migel



Gibijoko loberaren horma

t/a: Iñaki Olabarieta eta Jose Angel Mentxaka

Gizakia eta otsoa ez dira lar ondo moldatu; behintzat abereak hazten hasi zenetik. Otsoak harrapatzea garrantzitsua zen garai batean, eta horretarako erarik zaharrenetarikoa *loberak* ditugu. Zer dira? Mendietan dauden harrizko hormatzar luzeak dira, v-formakoak; inbutu horren amaieran zulo handi bat dago. Harrizko horma hauek bizpahiru metroko altuera izaten dute, eta 200 metrotik 900 metrora bitarteko luzera. Noizbehinka ate bat dago abereak pasatu ahal izateko, eta *lobera* barruan harriz egindako ezkutaleku txikiak egoten dira.

Artzain batek otsorik ikusiz gero edo abereren bat hilda aurkitzen zuenean, abisatzen zuen eta hurrengo goizean inguruko herrietakoak biltzen ziren, 200-300 lagun. Zarata handia egiten zuten otsoa izutzeko eta *loberaraino* eramateko. Ezkutalekueetatik igarotzean zarata handiagoa egiten zuten otsoak atzera egin ez zezan; azkenean zulora jausten zen eta bertan akabatzen zuten. Zuloa adar meheekin eta hostoekin estaltzen zen sarritan.

Zuen garrantzia ulertzeko, aipatu daiteke Kuartangoko bailarako herri bat urteetan zigortuta egon zela ganadua goiko larreetara eraman ezinik. Zergatik? Bada, behin otsoen deia egin zelako eta euren postuetan agertu ez zirelako.

Mendiko ibilaldietan *lobera* batekin topatzeko, mesetara igo behar da: Araban eta Burgosera arteko mendietan dozena batetik gora daude, beti leku basati eta ikusgarrietan.



Perexko Barrerilla



Santiago




# Ibilbide proposamena

Hamabi kilometroko ibilbidea da, larre eta pagadi zoragarrien artean. Etxe ederrak dituen Abezia herrira joango gara, Izarra ondoan. Landetxe ondotik oinez hasiko gara, ezkerretara eginez goiko ermitaraino; laster asfaltoa pista zabala bihurtuko da, aldapa gora doan bitartean. Pista nagusitik aurrera egingo dugu, ezkerrean eta eskuinean agertuko diren beste pista batzuei jaramonik egin barik.

Bost kilometro eskasera, ur-putzu bat topatuko dugu heziaz inguratua. Hori pasatu, eta ezkerretara egingo

dugu belar-pista batetik. Laster ate batetik pasatuko gara, eta pagadi eder batean sartu. Goroldio berdeak magia-ukitua ematen dio lekuari. Intuizioa lagun, bidetik jarraituko dugu pista handi batera heldu arte. Eskuinera apur bat egingo dugu, eta berriro eskuinera, ia-ia etorri garen lekurantz, hau ere belar-pista zabala dela. Kontuz ibili beharko dugu, zeren 200 bat metrora, ezkerretara, *loberako* horma hasten baita, adarren artean ezkutaturik. Behin horma aurkituta, sastraken artean jarraituko dugu leku garbienak aukeratuz. Hirurehun metro pasatxora aurkituko dugu zulo ikusgarria: heldu gara.

Hemendik Nerbioi ur-jauzi famaturaino bi kilometro daude; eta bertan, beste *lobera* bat. Animatuz gero, joan-etorria egin daiteke. Guk *lobera* barrutik egingo dugu itzulera; 60 metrora harriztar bik ezkutalekua izandakoa iragartzen dute. Beste hormaren ondotik jarraituko dugu, garbien dauden leku-etatik. Hormaren amaieran pista dago; ezkerrean egingo dugu, eta laster eskuinera, ur-putzu handira heldu arte. Hemendik Abeziara itzultzeko, bide politago bat proposatzen dugu: hesia baino lehen ezkerretara egin, gorantz, gorostien lerroa jarraituta. Pagadian sartuko gara eta ate bat aurkituko dugu. Apurka-apurka zirkulua itxiko dugu eta pista nagusira helduko gara; eta handik Abeziara.



astikenemotor  
www.ASTIKENEMOTOR.com  
DERIO - 946 451 781

Hortz-klinika  
**IDOIA ZUBIETA**  
Osasun-zentroa & Hortz-estetika  
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONZIA  
Arellaza doktorea, 11. - 1. esk.  
48011 BILBAO  
T: 944 416 322  
Uribe Plaza, 1  
48170 ZAMUDIO  
T: 944 521 370

POLITEKNIKA TXORIERRI  
hegan egiteko aukerak  
Bakelariak eta Lanbide Heziketa Bachelearrak eta Formazioen Profesionalarik  
Eman izena!  
www.politeknikatxorierrri.eus  
HETEL



# Gabon hauetan, murriztu zure hondakinak

Gabon jaiak eta oporrak familian bazteko eta ospatzeko uneak dira, baina era berean, data hauetan ohikoak ez diren hondakinak sortzen ditugu. Hemen aholku erraz batzuk uzten dizkizugu festa hauek planetako mugen barruan bizitzeko, zure etxeokoin ilusioak partekatzeari utzi gabe.

## Gabonetako dekorazioa

Egun hauetan, kaleak eta etxeak gabonetako zuhaitzekin, argiekin eta pazko-loreekin apaintzen dira, besteak beste. Jaiak amaitutakoan, dekorazio hori gorde egin behar dugu hurrengo urtean bererabiltzeko, baina zer egin bererabili ezin diren objektuekin?

Zuhaitzen kasuan, naturalak badira, ahal den guztietan birlandatu behar dira. Hala ez bada, garbigunera eraman behar dira. Apaingarriei dagokionez bererabili, baina ezin bada, edukiontzi grisera bota.

Bestalde, pazko-lore naturalak zaindu eta mantendu ditzakezu, hurrengo neguan loratu daitezen, baina, ez bazara oso trebea landareekin eta hiltzen bazaizkizu, bota

zabor organikora. Plastikozkoak edo beste material batekoak badira, kubo grisera bota behar dira.

Argien kasuan ordea, LED argiak aukeratu, jasangarriak direlako, eta behin gastatuta daudenean garbigunera eraman.

## Gabonetako gozokiak, afariak eta bazkariak

Garai honetan, askoz denbora gehiago ematen dugu sukaldetan eta, gainera, gabonetako gozoki tradizionalak gozaten dugu, turroi edo mazapanez, esaterako. Produktu horien bilgarriak edukiontzi horira bota behar ditugu, baita edari-latak eta kontserbak ere.

## Jostailuen garaia da

Etxeko txikienekin, ilusioz itxaroten dute Olentzero eta Mari Domingiren etorrera etxeko jostailu zaharrak opari berriengatik ordezkatzeko. Askotan, jostailu zahar horiek kaxoi baten barruan amaitzen dute, eta hori ez gertatzeko, onena beste haur batzuk zoriontsu egitea da. Horretarako, elkarre

ta erakunde askok jostailuak biltzen dituzte eta beste familia batzuei banatzea arduratzen dira. Hala ere, jostailu horiek hondatuta badaude, eduki-ontzi grisera bota behar dira.

Dena dela, jostailu askok barruan pilak eta bateriak dituzte, eta horiek garbigunera edo horretarako prestatuta dauden eduki-ontzi berezietara bota behar dira.

## Opari papera eta kartoizko kutxak

Zalantzarik gabe, opari-papera eta kartoizko kutxak egun horietako hondakin ohikoenetakoak dira. Kontsumoa murrizteko, egunkari edo aldizkari zaharrak bererabili daitezke eta opariak haiekin bildu. Bestela, bilgarriak gorde eta etorkizunean erabili daitezke.

Hala ere, opari-papera hondatuta badago, gogoratu papera eta kartoizko kutxak edukiontzi urdinera joan behar direla beti.



# Txizagurak gaudenerako

Eguneroko berba arruntak ere berdindu ditu hizkuntza-globalizazioak. Adibide bat: ume, heldu zein adinekoek, guztiok izaten dugu puxika hustu beharra, jakina; baina, zelan adierazi? *Pixa egin* edo *txiza egin*? Etxean gutako gehienok bigarren hori darabilgu, baina, sarritan, formalagoa begitantzen zaigu *pixa egin* esatea eta idaztea. Euskaltzaindiaren Hiztegian, dena dela, biek dute lekua. Mendebaldeko formak markatxoak izan arren (*txiza*. Batez

ere Bizk.) erabat erabilgarria da, baita batzuetan dihardugunean ere.

Txiza egiteko gogoak dugunerako geure-geureak diren moduak jasotzen dituzte hiztegiak: *txizalari* eta *txizagura*. Beste lurraldeetako *pixagale* eta *pixagura* baino aproposagoak dira Txorierrirako. *Txizestua* ere erabil genezake: *txizestua bajatortzu, esan*. Baina, kontuz, ez nahastu berba hori behin baino gehiagotan entzun dugun erdaratiko kalko honekin: *umea txizatu\* da*. Hori, zelan esan? Belarriek erne izanez gero, gure kaleetan ikasiko dugu: *txizak urten deutso* edo *txiza egin dau ganean*.

Txiza egiteko tokiari, berriz, *txizatokia* esan ohi diogu normalean, beste batzuen *pixatoki* edo *pixalekuari* hain zuzen ere. Eta txiza asko(tan) egiten duenari *txizatia*

esaten diogu, baita *txizontzia* ere; azken horrek bigarren adiera bat ere badauka: txiza egiteko ontzia edo orinala.

Hizkera jasoan *gernua* hitza darabilgu txiza izendatzeko (*gernu analisia egin*); "orina" versus "pis". Baina, ez pentsa hiztegiaren ikasitako kontua denik, Txorierrri gehienean *garnu* berba txizaren sinonimotzat erabiltzen da (Lezaman eta Larrabetzun izan ezik).

Amaitzeko, euskarak esparru formaletatik kanpo ere baduenez bere lekua, lagunarteko hizkerarako adibide erabilgarri bi: "echar un buen meo". Zelan esan? *Txiza-erreak bota*. Eta, entzun al duzue inoiz konparazio hau? *Txiza baino epelagoa*. Segundo Ispizua larrabetzuarrak batu zuen 1921. urtean.



## Opor hauetan gozatu familian, gozatu euskaraz!

Opor garaian, umeeekin egoteko denbora gehiago dagoenez, familian euskara indartzeko aukera paregabea dugu. Horretarako, pantailetan aurki daitezkeen euskarazko edukien zerrenda bat prestatu dugu, nora jo jakin dezazuen.

**1. PRIMERAN.** Mundura zabalik dagoen euskal leiho digital berria da. Euskarazko edukien streaming zerbitzurik handiena. Bertan, denetariko edukiak aurki ditzakezu, besteak beste, euskal ekoizpeneko eta nazioarteko telesailak, zinea, dokumentalak eta umeentzako edukiak. Edonon, edonoiz euskarazko edukiez gozatzeko plataforma.

**2. ZERNONIKUSI** egitasmoak streaming plataformetan euskaraz dauden edukien zerrenda eskaintzen du, zein plataformatan dagoen eta edukiaren informazioarekin. Horretaz gain, zinemetako euskarazko estreinaldien inguruko informazioa ere biltzen du.




**3.3 KLUBA.** ETB--ren Smartphone, tablet eta Smart TV-rako aplikazioa; ETBk eskaintako umeentzako telesail eta filmak biltzen dituena: marrazki bizidunak, Ene Kantak, Bitartean etxetik jolasten...

**4. GAME ERAUNTSIA.** Entretanentzako zuzendutako euskarazko bideojokoen zerrenda. Zerrendako bideojoko batzuk euskaraz merkaturatu dira, eta beraz, ez da ezer berezirik egin behar euskaraz jokatzeko. Beste batzuk, aldiz, itzulpen ez ofizialak dira, eta horregatik, itzulpena deskargatu eta instalatu egin behar da.

**5. EUSKAL ENCODINGS.** Euskarara bikoiztutako eta azpidatutako edukien datu basea, edukiak deskargatuta edo online ikusteko aukera eskaintzen duena.




## Berdintasunean janzten



Trantsizio menopausikoa emakumearen bizitzako aldi bat da, zalantza asko sor-tzen dituena. Hori dela eta, 40 urtetik gorako emakumeei zuzendutako hiru tailer antolatu dira Berdintasun Arlotik. Saio horiek azaroaren 13an, 16an eta abenduaren 4an egin dira Kultur Birikan, "Matronas Amane"-ren eskutik. Guztira 75 emakumek parte hartu dute, eta beste hainbat emakume itxarote zerrendan gel-ditu dira.

Tailer honen arrakasta ikusita, Txorierriko emakumeen beharrak eta interesak zeintzuk diren jakin nahi dugu antzeko saioak antolatzeko. Horretarako, bidali zuen proposamenak [berdintasuna@txorierri.eus](mailto:berdintasuna@txorierri.eus) helbidera.







# “Eskolazain bat da McGyver bezalakoa, baina gidoi barik”

GOIO POLO MARTINEZ | Sondikako eskolazaina

Goiok 41 urte daramatza atezain Sondikako eskolan, eta aurtengoa bere azken ikasturtea izan behar zen, erretiroa hartzeko garaia heldu zaio eta. Hala ere, eskolan hain dago gustura, ezen lana beste urte batean luzatzea eskatu baitu. Zergatia hurrengo leerroetan kontatu digu. Bestalde, bere eginkizunetara eta zaletasunetara ere hurbiltzeko aukera eman digu.

## Zergatik jarraitu nahi duzu lanean?

Bada, berton oso pozik nagoelako eta nire lana asko gustatzen zaidalako. Gainera, uste dut sozialki eskolan etxean baino gehiago irabaziko dudala. Ea luza-pena ematen didaten!

*“Asko gustatzen zait nire lana; gainera, sozialki eskolan etxean baino gehiago irabaziko dut”*

## Zer egiten duzu lanean?

Eskolako atea zabaldu eta ixteaz gainera, aztertu behar dut ur-, berokuntza- eta elektrizitate-sistemek ondo funtzionatzen duten. Matxura txikiez ere arduratzen naiz, eta handiak direnean teknikariei deitzen diet. Era berean, irakasleei laguntzen diet ahal dudan guztietan. Eskolako edozein txokotara begiratu, eta ziur asko, nik egindako zerbait topatuko duzue; esaterako, Ko-

*“Eskolako edozein txokotara begiratu, eta ziur asko, nik egindako zerbait topatuko duzue”*

rrika Txikirako lekukoa. Iaz, material birziklatua erabilia egindako Gabonetako zuhaitzen lehiaketa antolatu zuen aireportuak, eta eskolak zuhaitz solidarioa aurkeztu zuen eta guztiok ibili ginen horretan laguntzen. Atezain bat da McGyver bezalakoa, baina gidoi barik; ilusioarekin eta gogoarekin.

## Zein da alderik onena?

Ertortzea eta jendearekin egotea. Umeekin ere badut harreman ona, magia-trukuak eta guzti egiten dizkiet. Era berean, guraso asko ezagutzen ditut, txikitan bertan ikasi zuten eta.

## Eskola asko aldatu da 41 urtean, ezta?

Bai, hasi ginenean gaztelaniaz ikasten zen; gero, gaztelaniaz eta euskaraz; eta

azkenean, bakarrik euskaraz. Aldaketa horiek oso gogorrak izan ziren...

## Euskara ikasi behar izan zenuen?

Euskaldun berria naiz, baina eskolan hasi baino lehen ikasi nuen euskara. Soladuzka Lesakako mutil batekin egin nuen eta behin esan zidan bizkaitarrok gure burua euskaldunontzat izan arren ez genekiela euskaraz egiten; horrek ukitu ninduen eta esan nion Lesakara joango nintzela euskara ikastera. Eta joan, joan nintzen. Sei urte-edo eman nituen euskara ikasten, eta gaztelania titulurik ere eskatzen ez zidatenez, bada, ez nuen euskara titulurik atera... Gero, udalak PL2 eskatu zidan eskolan lan egiteko, eta atera nuen.

*“Umeekin ere badut harreman ona, eta guraso asko ere ezagutzen ditut, txikitan bertan ikasi zuten eta”*



- Plater konbinatuak  
- Ogitartekoak  
- Kaxolak

**BIZKARGI KAFETEGIA**  
Euskal Herria Kalea  
48160 - Derio (Bizkaia)  
94 454 16 55



**RADIO TAXI FEMADE** *Zure taxi, Teorissikoa*

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h **94 480 09 09** 

**ERRESERBAK:**  
[www.taxisaeropuertobilbao.com](http://www.taxisaeropuertobilbao.com)



**DESKARGATU APP-A**  
**TAXI FEMADE**





### **Eraikinak berak ere aldaketa asko izan ditu.**

Eskolako lehen eraikina 1985ean egin zen; eta Haur Hezkuntzako eraikina, 2008an. Lan handiak egin dira, eta patioan estalkia ipini. Nire ustez, azpiegitura onak ditugu eta ikastetxe eroso da. Gainera, ondoan kiroldegia dugu eta umeak hara joaten dira gimnasia egitera... Eskolan 280 ume inguru daude. Irakaskuntza ere asko aldatu da...

### **Adibidez?**

Lehen ume guztiak joaten ziren etxera bazkaltzera; orain, aldiz, eskolara etortzeak esan nahi du bertan bazkalduko dutela. Gainera, euren gainean gabiltza, eta presa helarazten diegu.

### **Presat?**

Bai. Zertarako nahi du lau urteko ume batek ingelesa ikastea? Momentua ailegatzaren denean arazo barik ikasiko du! Bitartean, nire ustez, onura handiagoak ekarriko dizkioten gauzak egin ditzake, adibidez, musika edo dantza; edo lotsatia bada, antzerkigintza.

### **Umeak ere aldatu dira?**

Bai, lehen umeekin alderatuta, gaur egungoek ez dute maleziarik. Lehen, umeek gehiago aztertzen zuten zer bihurrikaria-edo egin... Gainera, gaur egungo gurasoek gehiago daude umeen gainean: zer bazkaltzen duten eta zer ez, zer egiten duten eta zer ez... Dena kontrolpean izan nahi dute.

**Atezainaren lanaz gainera, parte-hartze aktiboa duzu eskolako bizitzan, ikasturtean zehar antolatzen diren ekintzetan, jaietan... Gozitzen duzu?**

Askok. Izan ere, ederto pasatzen dut irakasleekin eta ikasleekin lanean, antolatze-lanetan parte hartzen... Eskolaren parte naizela sentitzen dut. Gabonetan gaude orain, oso garai politoan umeekin partekatzen; hala ere, nire iritziz, gizartearen orokorrean, Gabonak gustatzen ez zaizkien mezua zabaltzen dabilta asko, eta ez dira konturatzen umei sozialki ilusioa zor diegula.

*“Lehen umeekin alderatuta, gaur egungoek ez dute maleziarik; gurasoek, bestalde, gehiago daude euren gainean”*

### **Nolako balorazioa egiten duzu eskolan egindako ibilbideari buruz?**

Erabat positiboa. Pentsa ezazue: erretiroa hartzeko gogorik ez!

### **Orduan, ez dizugu etorkizuneko planei buruz galdetuko...**

Ez dut planik. Nire edadearekin ez da planik eduki behar, ilusioa baizik. Dantza egin, ondo bizi eta ondoan duguna, momentu txiki horiek, disfrutatu. Bidaia handia egiteko aukera badator, aprobeztatu, baina bitartean hobe da lagunekin biltzea eta zurito batzuk hartzea.

*“Ederto pasatzen dut irakasleekin eta ikasleekin lanean... Eskolaren parte naizela sentitzen dut”*

Sondikan jaio zen duela 64 urte, eta Deriora ezkondu zen. Hala ere, lan-loturaz gainera, lotura sozial es-tu-estua du bere jaioterriarekin, eta hango eragile aktiboa da. "Herriko saltsa guztietan ibili naiz. Esaterako, oraindik Bilbotik desanexionatuta ez geundela, jai-batzordea eratu genuen eta udaletxera joan ginen jaiak guk geuk antolatzen uzteko eskatzera. Hirurehun mila pezeta eman ziguten, eta diru horrekin eta han eta hemen lortu genuenarekin lortu genuen jaiak antolatzea. Era berean, Inauterien jai-batzordearen sorreran parte hartu nuen, eta Sondikako Klubeko presidentea izan naiz 24 urtean". Masajista ere ibili zen bertan zein Getxon. "Futbol-taldeek orokorrean hutsune hori zutela ikusita erabaki nuen masajista moduan trebatzea".

Txikitan Gorantzaileak taldearen dantzaria izan zen, eta duela zazpi bat urte taldean sartu zen berriro.

## Saltsa guztietako perrexila

"Taldearen 50. urteurrenaren harira antolatutako ekintzetan hartu nuen parte, eta beste behin piztu zitzaidan grina". Ez zitzaion asko kostatu gorputza berriro dantzan ipintzea, bere esanetan, oso pertsona aktiboa da eta. "Bendejerioa ere banaiz. Amaginarrebak postua zuen Erriberako merkatuan, eta nik zapatuetan hara joaten jarraitzen dut; ortuan landatzen ditudan sasoiko produktuak saltzen ditut han. Eskolatik atera, eta ortura joaten naiz lan egitera. Gimnasioa da niretzat (kar-kar)". Baserrian 27 sagar-mota ditu, eta zuhaitzei buruzko ikastaroak egin ditu. "Argazkigintza ere ikasi nuen, eta herrian antolatutako zenbait lehiaketa irabazi. Horri lotuta, *Sondikako elizatearen kondaira* liburuan agertzen diren argazkiak nireak eta Josu Astobietarenak dira". Era berean, egurra lantzen ikasten ibili zen hiruzpalau urtean, eta ondoren, sukaldaritzaz-ikastaro batean. "Bigarren umea jaio zenean, dena utzi nuen arreta osoa bi seme-alabei emateko".

Zaletasun asko ditu, baina, zalan-tza barik, bitxiene da mundu osoko harea biltzea. "Bilduma 2006an hasi nuen. Menorcan nengoela burura etorri zitzaidan munduko lekuaren arabera harea zein ezberdina den, eta biltzeari ekin nion. Etxean bi mila laginek osatutako bilduma dut. Lagin batzuk neuk hartu ditut bidaietan; beste batzuk Interneten trukatu ditut; eta beste batzuk lagunek eta senideek ekarri dizkidate euren bidaietatik. Lagin bakoitza saio-hodi baten sartuta dut". Hare guztiak bereziak direla dio. "Pentsa ezazue; bikote bat eztaibidaian Isla Mauriciora joan da, eta bikotekide batek bost minutu lapurtu dizkio besteari, harea batzeko; horrek ez du preziorik". Hare-bilduma ikusgai ipini du zenbait lekutan, eta ziurtatu digu ahal duen arte jarraituko duela han eta hemengo harea batzen.

**TALDEA**  **GURENA**  
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

**ZURE NEURRIRA**



**BABESPEKO  
APARTAMENTUAK**  
600 euro  
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIK  
EGOITZEAN**  
egunean  
gauean  
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9  
LOIU 48180  
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

**944 530 049**  
**www.gurena.com**



# Sondika

## Abenduak 22, barikua

17:00-22:00 Origami tailerra, Gaztetxean.

## Abenduak 23, zapatua

17:00-22:00 Gabonetako apainketa, Gaztetxean.

## Abenduak 24, domeka

17:15 Kalejira, San Joan elizatik: Olentzero, Mari Domingi eta belen biziduna. Ostean, gaztaina erreak eta txokolate beroa.

## Abenduak 26, martitzena

11:00-14:00 Buztin-tailerra, Ludoteka txikian.

17:00-21:00 Gaztetxef: minipizza, Gaztetxean.

## Abenduak 27, eguaztena

11:00-14:00 Eskulanak, Ludoteka gaztean.

17:00-21:00 Bingoa, Gaztetxean.

## Abenduak 28, eguena

11:00-14:00 Agur 2023 jaia, Ludoteka txikian eta gaztean.

## Abenduak 29, barikua

12:00-14:00 Gabonetako parkea, Goron-dabeko kiroldegian.

17:00-20:30 Gabonetako parkea, Goron-dabeko kiroldegian.

19:45 Txorierriko XXXVI. Gabon Kantak, San Joan elizan: Txuma Olagüe abesbatza, Olagüe talde korala, Gaztelumendi, Ekida-

zu, Ipar Alde eta Kantika Korala.

## Abenduak 30, zapatua

12:00-14:00 Gabonetako parkea, Goron-dabeko kiroldegian.

17:00-20:30 Gabonetako parkea, Goron-dabeko kiroldegian.

## Abenduak 31, domeka

17:00-20:00 Gabon Zaharreko mozorrojaia, Gaztetxean.

## Urtarrilak 2, martitzena

11:00-14:00 Sukaldaritz-tailerra, Ludoteka txikian.

17:00-21:00 Gaztetxef: miniburger, Gaztetxean.

## Urtarrilak 3, eguaztena

11:00-14:00 Sukaldaritz tailerra, Ludoteka gaztean.

17:00-21:00 Jokoak, Gaztetxean.

21:30-09:30 Gaubela, Gaztetxean.

## Urtarrilak 4, eguena

11:00-14:00 *El Grinch* filma, Ludoteka txikian.

11:00-14:00 Filma, Ludoteka gaztean.

## Urtarrilak 5, barikua

11:00-14:00 Gabonetako festa, Ludoteka txikian eta gaztean.

17:00-22:00 Tailerra: Perfumelandia, Gaztetxean.

Errege Magoak.

## Urtarrilaren 30era arte

Gabonetako postalak ikusgai, liburutegian.



a: Pexels



a: Freepik



a: Freepik



a: Freepik

**EL PUNTO BOBO**  
Español

Iturrigane 1 - Sondika  
Tel. 946 855 612 - 699 133 157  
info@elpuntobobo.com - www.elpuntobobo.com

Txorierrri EL, 30  
48150 SONDIKA

94 453 35 05  
667 78 63 31

**PEÑA ATHLETIC BETI HARROBIA**

Zorionak eta urte berri on

# Zamudio

## Abenduak 22, barikua

17:30 Olentzeroren eta Mari Domingiren egunerako abestiak eta dantzak entseaztea, Ludotekan.

19:00 Abesbatzen kontzertua, San Martin elizan: Zamudioko Kamara Korala, Zoli abesbatza (Zamudio), Sopelanako Lagun Artea abesbatza eta Coral Zornoza (Amorebieta-Etxano).

## Abenduak 23, zapatua

18:30 Gaztestazioa apaintzea.

## Abenduak 24, domeka

10:00 Gabonetako plater-tiroketa, Teknologia Parkean. Zamudio Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatua.

10:00 Baserrietatik abestu, Zamudioko Kamara Koralarekin eta Zoli Abesbatzarekin.

12:00 Gabon-kantak herritik.

14:00 Tailerrak, jokoak eta bazkaria, Kultura Etxean.

16:00 Olentzeroren eta Mari Domingiren istorioa, Kultura Etxean.

16:30 Olentzerori eta Mari Domingiri harrera egiteko kalejira, Kultura Etxean.

18:30 Olentzerok eta Mari Domingik harrera egingo die umeei, frontoian. Txokolatada.

## Abenduak 26, martitzena

16:00-21:00 Gabonetako jolas-parkea, kiroldegian.

17:00 Gabonetako postre-tailerra, Gaztestazioan.

## Abenduak 27, eguaztena

Jumpyard-era irteera, Gaztestazioak antolatua.

16:00-21:00 Gabonetako jolas-parkea, kiroldegian.



## Abenduak 28, eguena

16:00-21:00 Gabonetako jolas-parkea, kiroldegian.

Inuzente Eguna, Gaztestazioan.

## Abenduak 29, barikua

16:00-21:00 Gabonetako jolas-parkea, kiroldegian.

18:30 Bat irabazteko, Gaztestazioan.

## Abenduak 30, zapatua

Gabon Zaharreko mendi-irteera, Gaztestazioak antolatua.

16:00-21:00 Gabonetako jolas-parkea, kiroldegian.

## Abenduak 31, domeka

08:00 Egun erdiko irteera, Durangaldera, Arroeta mendi-taldeak antolatua.

10:00 Gabonetako plater-tiroketa, Teknologia Parkean. Zamudio Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatua.

01:00 Kotiloia, Adintsuen Etxean.

## Urtarrilak 2, martitzena

18:30 Zientzia-erronkak, Gaztestazioan.

## Urtarrilak 3, eguaztena

11:00-18:00 Gabonetako parkera irteera, Gaztestazioak antolatua.

17:00-19:00 Mugikorra erabiltzen ikasteko saioa, Adintsuen Etxean.

## Urtarrilak 4, eguena

11:00-17:00 Bilboko izotz-pistara eta irris-tatzera irteera, Gaztestazioak antolatua.

## Urtarrilak 5, barikua

18:30 Urteberriko jaia, Gaztestazioan.

Urte berri,  
Harro Herri,  
eta Harro  
euskaraz!  
Zorionak!

23.korrika

**HARRO**  
**HERRI**

Irundik Baionarat  
2024ko martxoaren 14tik 24ra

Txorierriko **æk**

A vibrant, colorful graphic with a collage of abstract shapes and patterns. The text is arranged in a central, bold font. The background is a mix of bright colors like red, yellow, blue, and green. The overall style is modern and festive.



# Loiu

**Abenduak 23, zapatua**

10:00-15:00 Gabonetako parkera irteera.

**Abenduak 24, domeka**

12:00 (Larrondo), 16:30 (Lauroetako San Migel ermita) eta 18:00 (Zabaloetxe): Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira.

**Abenduak 25, astelehena**

10:00 Karabizura XI. Igoera, udaletxetik.

**Abenduak 26, martitzena**

09:30-13:30 Campus Multikirolak.

**Abenduak 27, eguaztena**

09:30-13:30 Campus Multikirolak.

**Abenduak 28, eguena**

09:30-13:30 Campus Multikirolak.

**Abenduak 29, barikua**

09:30-13:30 Campus Multikirolak.

**Abenduak 30, zapatua**

18:00 San Silvestre Loiu.

**Abenduak 31, domeka**

10:30 Urteari Lainomenditik agur esatea. Irteera, Airtzako aparkalekutik.

**Urtarrilak 2, martitzena**

09:30-13:30 Loiu Christmas Campus.

**Urtarrilak 3, eguaztena**

09:30-13:30 Loiu Christmas Campus.


11:00-13:00 eta 17:00-20:00 Gabonetako parkea, Larrondon.

**Urtarrilak 4, eguena**


09:30-13:30 Loiu Christmas Campus.

**Urtarrilak 5, barikua**

09:30-13:30 Loiu Christmas Campus.




a: Umeen Gabonetako Parkea



**SARRIKOLA  
OGITEGIA**

Euskal pastela  
Baserniko ogia  
Bizkotxoak  
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu  
Tel.: 94 455 83 37  
619 78 58 84

*Eianari-denda*  
**Elianna**



**Allprox**

**URTE  
BERRI ON!**

Jurrikoetxea, 2 eta 3  
944 558 433  
689715552

**LA  
GUN  
KOR**

aretxalde, 68 - 48196 Iezama  
t. 944 556 538 - fixa 944 555 084  
lagunkor@hotmail.com

AIOLKULARITZA FISKALA LABORALA KONTABILIA  
ZERBITZU BULEGOA

# Lezama

## Abenduak 23, zapatua

Billar txapelketa, Gaztelekuan.

19:30 Txorierriko Gabonetako Kontzertuak, Andra Mari elizan: Bakioko abesbatza, Bermeoko abesbatza eta Ekidazu Lezamako abesbatza.

## Abenduak 24, domeka

17:00 Olentzero eta Mari Domingi. Kalejira, musika, dantzak, gaztaina erreak, opariak...

## Abenduaren 26tik 29ra

09:00-14:00 Sormen-kolonia, Uribarrin

## Abenduak 28, eguena

10:00-13:30 Tximiparkera Irteera, Ludotekak antolatua.

## Urtarrilak 2, martitzena

Jumpyrad-era irteera, Gaztegunek antolatua.

## Urtarrilaren 2tik 5era


09:00-14:00 Sormen-kolonia, Uribarrin

10:00-13:30 Tximiparkera Irteera, Ludo

## Urtarrilak 3 eta 4

11:30-13:30 Gabonetako parkea, frontoian.

16:30-20:30 Gabonetako parkea, frontoian.



**LAINOMENDI**  
Gabonetako dantza-erakustaldia  
Abenduak 30 / 18:00etan  
Derioko kiroldegian

ZORIONAK ETA URTE BERRI ONI





a: Derioko Udala



a: Freepik

# Derio

**Abenduak 24, domeka**

11:00-14:00 Olentzero eta Mari Domingiren harrera, Herriko Plazan.

17:00 Kalejira Olentzerorekin eta Mari Domingirekin, Errekalde parketik.

18:00-20:00 Olentzero eta Mari Domingiren harrera, Herriko Plazan.

**Abenduak 26, eguena**

11:30-14:00 Biwak climbig-era irteera, Gazlekuak antolatua.

**Abenduak 27, eguaztena**

09:30-16:00 Gasteizera patinatzer, Ludogaztek antolatua.

**Abenduak 28, eguena**

18:00-20:00 Jumpyard parkera, Gaztelekuak antolatua.

**Abenduak 29, barikua**

12:00-14:00 Jumpyard parkera, Ludogaztek antolatua.

18:00 Nagusien jaia, Kultur Birikan. Omenaldia 1938an jaiotakoei.

18:30 *Munduari bira 80 egunetan* umeentzako antzerkia, Gurea Aretoan (3 euro).

**Abenduak 30, zapatua**

18:00 Lainomendi dantza-taldearen ekitaldia, kiroldegiko pistan.

**Urtarrilak 2, martitzena**

10:30-14:00 eta 16:30-20:00 Izotz-pista, frontoi ondoko pistetan (3 euro).

15:30-20:30 Gasteizera patinatzer, Gaztelekuak antolatua.

**Urtarrilak 3, eguaztena**

10:30-14:00 eta 16:30-20:00 Izotz-pista, frontoi ondoko pistetan (3 euro).

10:30-17:30 Gabonetako parkera irteera, Ludogaztek antolatua.

**Urtarrilak 4, eguena**

10:30-14:00 eta 16:30-20:00 Izotz-pista, frontoi ondoko pistetan (3 euro).

17:30 eta 18:30 *KUBIK* urte batetik lau urtera bitarteko umeentzako antzezlan, Kultur Birikan (3 euro).

**Urtarrilak 5, barikua**

10:30-14:00 Izotz-pista, frontoi ondoko pistetan (3 euro).

**Urtarrilak 6, zapatua**

16:30-20:00 Izotz-pista, frontoi ondoko pistetan (3 euro).

**Urtarrilak 7, domeka**

10:30-14:00 eta 16:30-20:00 Izotz-pista, frontoi ondoko pistetan (3 euro).

**aldeko one**  
hortz klinika  
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar  
Odontologoa

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurreratuak doan
- Especialitatea: umeak

Urbe 7, behea  
48160 DERIO (Bizkaia)

RPS. 184/10

**OPTIKA IKUSLAN**

Arbolantxa kalea 5, behea  
ZAMUDIO  
Tel.: 94 452 28 18

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku


Zerbitzu Berriak  
Logopedia  
Podologia  
Krimasajak

**clínica dental ZANDUZ**  
hortz klinika

Txanieri etorbidea, 9 - Lortze | Arteaia arakisa | 48160 DERIO  
94 454 01 01 | 657 79 54 45  
info@dentalzanduz.com | www.dentalzanduz.com



# Larrabetzu



## Abenduak 22, barikua

20:00 Abesbatzen kontzertua: Gaztelumendi, Inmakuladako abeslariak eta KE-AZ, Andra Mari elizan.

## Abenduak 28, eguena

10:00 Bizkaia Park Abenturara irteera.

## Urtarrilak 4, eguena

Puzgarriak, frontoian.

## Urtarrilak 6, zapatua

Uriari buelta.

## Hori baik antolatuta

## Abenduak 22, barikua

19:00 *Bi baseri* laburmetraia. Ostein, solasaldia Amets Zulueta zuzendariarekin.

## Abenduak 23, zapatua

15:30 Olentzeroren bila.

## Abenduak 24, domeka

18:00 Olentzero.

## Abenduak 25, astelehena

19:00 Bertso-saioa: Maialen Lujanbio, Onintza Enbeita, Xabat Gallettebeitia eta Joanes Ilarregi. Ondoren, Dj Soloko.

## Abenduak 28, eguena

19:30 *Tu-tum Platz* bakarrizketa, Jon Plazaolaren eskutik.

## Abenduak 29, barikua

11:00 Irteera Durangoko izotz-pistara (LH6-tik aurrera).

21:00 Gazteen afaria eta bingo musikatua.

## Abenduak 31, domeka

Kotilioia: zerua eta ingernua.

## Urtarrilaren 2tik 5era

Laburmetraien rallya.

## Urtarrilak 5, barikua

19:00 Rallyko laburmetraiak ikustea.

## Urtarrilak 11, eguena

19:00 Mahaingurua: Emakumeak eta kirola.

## Urtarrilak 12, barikua

22:00 Kontzertuak: Eire eta Pinpilinpussies.

## Urtarrilak 19, barikua

22:00 Kontzertuak: Brigade Loco eta Kontralde.



**BASALBEITIKO TXAKOLINA**

Bizkaiko Txakolina  
Euzko Leizola

Goitioltza auzoa, 37  
(LEZAMA)  
94 455 61 46

**ZAMUDIO**  
**Loteria Nacionala**

Leizaola L. plaza, 7  
Tel.: 94 452 09 59  
loterias.zamudio@gmail.com

**AmAr**  
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:  
9:00-19:00  
Laburunbata:  
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behe  
Zamudio  
944 520 419

# “Herriko gazteek badute Hori Bain eg

Hori Baiko kideek azaldu dutenez, Larrabetzuko gazteentzat ibilbide naturala izan da gaztetxean parte hartzen hastea. “Hamahiru edo 14 urterekin Sorginen Gauaren antzerkian parte hartzeko aukera izaten da, eta horren ostean, asanbladetara etortzeko joera egon da gutxi arte. Azken urteetan, belaunaldi berriak ez dira gaztetera lehen bezain erraz etortzen, eta gizartearen gertatu den despolitizazioak gazteengan duen eragina asko nabaritu dugu”. Kezkatuta, azaroan asanblada irekia antolatu zuten, Hori Bai zer den eta bertan nola parte hartu daitekeen azaltzeko. “Uste baino gazte gehiago hurbildu ziren eta oso pozgarria izan zen. Baita oso esperantzagarria ere, ikusi genuelako herriko gazteek badutela Hori Bain egoteko eta gauzak antolatzeko gogoia. Gizarteak gazteen inguruan eraikitako irudiaren kontrara, jarrera proaktiboa erakutsi zuten, eta haien iritziak azaldu. Gainera, gure belaunaldiarekin alderatuta, ezberdintasuna ikusten dugu, gu asanbladara oso lotsati sartzen ginelako, proposamenak egitearen beldur, eta oso positibotzat jotzen dugu hori aldatu izana”.

Euren ustez, jarrera proaktibo horrek lagunduko du Hori Bai berpizten. “Ezin dugu ukatu gure jarduna asko murriztu dela, eta batez ere pandemiaren ondoren zailtasunak izan ditugu ekintzak antolatzeko. Eta bilerak egiteari inoiz utzi ez diogun arren, indar falta sumatu dugu. Belaunaldi berriek ilusioa eta gauzak egiteko gogoia ekarri diezazkiguketela uste dugu. Gainera, haize berriek orain arteko dinamikak, egiteko moduak... birpentsatzeko aukera ekarri dezakete, eta hori ere beharrezkoa da”.

## HORI BAI GAZTETXEKO KIDEAK

Ohi moduan, Hori Bai Larrabetzuko gaztetxeako kideek kultura-egitarau oparoa prestatu dute Gabonei begira. Hala ere, aurten are ardura handiagoz antolatu dute egitarau hori, herriko belaunaldi berriengana heltzen ahalegindu dira eta. Gainera, gaztetxeako instalazio elektrikoa berrituko dute oso-osorik eta horretarako ere ahalegin handia egin beharko dute. Ekintzetan parte hartzeko gonbidapena larrabetzuarrei ez ezik txorierritar guztiei ere egin diete.

*“Haize berriek orain arteko dinamikak, egiteko moduak... birpentsatzeko aukera ekarri dezakete”*

Gabonetako kultura egitaraua Hori Bai gaztetxeako kideek antolatu ohi dute. Aurtengo egitaraua asanblada irekia egin baino lehen izan dute prest, baina hura diseinatzeko orduan belaunaldi gazteak kontuan hartzen ahalegindu dira. “Esaterako, DBHko gazteentzako irteera antolatu dugu Durangoko izotz-pistara, gazteen afaria egongo da eta, herriko nesken artean futbolak duen garrantzia ikusita, «Emakumeak eta kirola» mahaingurua egongo da”. Aipatu moduan, Gabonetako egitaraua tresna da Hori Bairen helburuak lortzeko eta urteko eskaintza batzeko. “Kultur eskaintza askotarikoa eta kalitatekoa egin nahi diegu larrabetzua-

reari, aisialdi-eredu alternatiboa garatu nahi dugu, eta heziketarako aukera ere eman. Denengana iristen saiatu gara eta uste dugu askotariko profiletzako egitaraua sortu dugula”.

### Gabonetako ekintzak

Egitarau horrek nobedadeak dakartza. “Arestian esandako izotz-pistara irteeraz eta gazteen afariaraz gainera, bingo musikatua egingo da lehen aldiz, eta ikusentzunezkoek leku handiagoa izango dute. Horrela, Amets Zuluetairen Bi baserri laburmetraia ikusiko dugu eta horren ostean solasaldia egongo da. Bestalde, laburmetraien rallya egingo dugu urtarri-

*“Kultur eskaintza askotarikoa eta kalitatekoa egin nahi dugu, eta aisialdi-eredu alternatiboa garatu”*



**TABERNA  
GAZTEDEI**

Eguneko menuak  
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA  
944554422 - gazteditaberna@gmail.com



**IZ**

I.L.E. APAINDEGIA  
946036943

Trankilizagorri #2  
ZAMUDIO

iz.lopez@izgip@gmail.com



**sarraila-denda  
Txorierrri**

ADITUM SARRAILAGINTZAN ETA SEGURASUNAN

946 038 663  
625 100 800

info@serrajerlabonieri.com  
www.serrajerlabonieri.com

Alain Pomposo Zarate  
Lurkila, 4 lorja  
48160 Deno



# oteko eta gauzak antolatzeke gogoa”

lean. Berrogeita zortzi orduan laburmetraia bat egiteko erronka botako diegu Larrabetzuko zein eskualdeko herritarrei. Gaia zein den urtarrilaren 2an jakinaraziko dugu, eta hiru baldintza jarri: azaldu beharreko objektua, lekua eta esaldia. Parte-hartzaileek bi egun izango dituzte bideoa egiteko, eta barikuan Hori Bain ikusiko ditugu finalisten lanak, eta sariak banatu”.

Gune autogestionatuta da Hori Bai gaztetxeak, eta, hortaz, hangoek kudeatzen dute den-dena. “Ekintza batzuetatik lortzen duguna erabiltzen dugu hurrengo ekintzak antolatzeko. Halaber, herriko beste elkarteek laguntzen digute; adibidez, bertso-saioa Itallen bertso-eskolarekin batera antolatu dugu, eta Jon Plazaolaren bakarriketa, Darabilgu euskara elkartearekin batera”. Euren ustez, herritarrak modu boluntarioan elkartzea eta egitaraua antolatzea aberasgarriagoa da, teknikariek egitaraua prestatzea baino.



“Gainera, gazte-asanbladak egitaraua antolatzeak onurak ditu: alde batetik, gazteengandik hurbilago dagoen eskaintza diseinatzen da, eta bestetik, bermatzen da egitarauan euskara dagoela eta gazteen, emakumeen zein langileen zapalkuntza jorratzen dela, beste gai batzuen artean”.

Gabonetako kultur ekitaldiak ilusioz, mimoz eta arduraz antolatzen dituzte beti. “Aurten baina, ardura handiagoz prestatu ditugu, egitasmoari beste helburu bat gehitu diogu eta: Hori Baiko instalazio elek-

*“Hori Baiko instalazio elektriko osoa berrituko dugu, segurtasuna bermatu eta ekintzak modu duinago batean egin ahal izateko”*

*“Berrogeita zortzi orduan laburmetraia bat egiteko erronka botako diegu Larrabetzuko zein eskualdeko herritarrei”*

triko osoa berrituko dugu, segurtasuna bermatzeko eta ekintzak modu duinago batean egin ahal izateko. Horrek esfortzu ekonomiko izugarria eskatzen du. Dirukopuru handia ordaindu behar da, eta, esan moduan, leku autogestionatua da gurea. Horregatik, Gabonetako ekitaldietan parte hartzeko deia egiten diegu Txorierriko gazte eta heldu guztiei”. Deia eginda, erantzutea eta disfrutatzea baino ez da falta.

 **Goiri'78 s.l.**  
Zerbitzu ofiziala



Txorierri et., 46  
48150 Sondika  
Bizkaia

94 453 25 15  
94 453 39 31

  
**TXAKURPANDA**  
Peluquería + canina

604 91 33 66

 DERIO

**Sondigarbi**  
**GARBITEGIA**

ITURRIGANE, 2  
635584941

EGUNERO  
8:00-22:00



# Bilboko Txotxongilo Nazioarteko Jaialdia Deriora etorri da

t: Juanjo Corrales, BilbaoTXfestibalaren zuzendaria

Beste urte batez –eta dagoeneko 42 urte dira, eten barik – egin da Bilboko Txotxongilo Nazioarteko Jaialdia, bere ibilbidearekin eta helburuekin aurrera jarraitzen duena: alde batetik, milaka urteko arte hau, herritarra eta garaikidea, sustatzea; eta bestetik, horretan diharduten artistak ikusgai egitea.

Aurtengo edizioan, lekua egin dugu txotxongiloen eta gauzen euskal konpainia profesionalak elkarrekin egoteko eta kezak eta iritziak partekatzeko. Helburua izan da konpainiak animatzea era sektorialean heltzeko moduko interes eta beharizan komunak eta kolektiboak dituen gune artistiko eta profesional bat sortzera. Gonbidatu ditugun konpainien artean, bi azpimarratu nahi ditugu: Hego-afrikako Janni Young Co, dantza garaikide afrikarra eta txotxongiloen antzerkia uztartzen dituen *Orígenes* ikuskizuna aurkeztu zuena; eta Andaluziako Espejo Negro taldea, *Cris, pequeña valiente* formatu handiko ikuskizunaren bidez LGTBI gaien errealitate sozialera hurbildu gintuena.

Jaialdia ohiko lekuetan egin da, hala nola Campos Antzokiko Cúpula Aretoan, Deustuko La Fundación aretoan eta Bilboko zenbait auzotako hiritar-zentroetan. Aldi



berean, emanaldiak izan dira Bizkaiko hainbat herritan; esaterako, Derion, Lezaman eta Larrabetzun.

Derioko emanaldia, hain zuzen, publiko orokorarentzat izan zen eta Emaús Gizarte Fundazioaren PAI Bitartean eguneko zentroan egin zen; Argentinako Malletas Mágicas konpainiak bere ikuskizuna aurkeztu zuen bertan. BilbaoTXfestibalak eta Emausek kolaborazio-hitzarmena dute sinatuta, eta emanaldia akordio horren baitan egin zen. Gainera, hitzarmena dela eta, eguneko zentroko erabiltzaileak izan

ziren Janni Young konpainiak Campos Antzokian egindako emanaldian eta itzalteatro tailerra egin zuten.

Arte eszeniko hau maite eta errespetatzen dugun boluntariook osatzen dugu BilbaoTXfestibalaren zuzendaritza eta produkzio-taldea, eta profesionaltasunez egiten dugu lan, kulturaren egindako inbertsio publikoa oso-osorik herritarren onurako izan dadin. Hortaz, Emaús Gizarte Fundazioari eskertzen diogu egindako kolaborazioa, beharrezkoa baita txotxongiloen antzerkia Deriora hurbiltzeko. Eskerrik asko.



## Erabili meloia

### Gorde erosketa-tiketa

**Kontsumitu buruarekin**

**#KontsumitzenJakin**



**kontsumOBIDE**  
KONTSUMIBIDE EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Euskadi, nuzolana, bien comin



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**




[www.kontsumobide.eus](http://www.kontsumobide.eus)

# Ezkaia

t:@txiribita\_mundi

*Thymus sp.* Usain biziko mulu lurrin-tsu txikia da eta ohikoa da ingurune mediterraneoan; hala ere, ondo jasaten ditu tenperatura hotsak. Leku harritsu, siku eta eguzkitsuetan hazten da, eta udaberrian loratu. Izan ere, udaberria da hain zuzen sasoirik egokiena ezkaia bildu eta sikatzeko. Hostoak eta loreak erabiltzen dira, eta ezinbesteko landarea da nekazaritzako inguruetako familien botikinean.

## Sukaldean

Digestio-sistemari onura handiak ekartzen dizkio eta, beraz, gisatueta, zopetan, adoboetan... erabili daiteke. Otorduen ostean ezkaia-infusioa hartzeak digestioa egiten laguntzen du eta jakiak asimilatzen; gainera, haizeak arintzeko ere lagungarria da (eragin handiagoa izateko, gehitu daiteke garraiska, menda edo mihilua). Katilukada bakoitzeko koilarakada txo bat infusio hartu.

**Ardoa:** ardo zuri litro batean 25 g lore siku beratuko dugu 15 egunean; iragazi. Digestio astunak izanez gero, otorduen ostean basokada txiki bat edango dugu.

## Propietate sendagarriak

Ezkaia eragin suspergarria du eta horregatik onuragarria da ahul bagaude. Antibiotiko natural itzela da, antiseptikoa, birusen aurkakoa eta oso espektoratzaile eraginkorra; hori dela eta, kontuan hartzekoa da hotzeria, gripea, eztula, bronkitisa... arintzeko.

**Ezki-jarabea:** 30 g hosto siku eta litro erdi ur behar dugu infusioa prestatzeko. Kazola batean berotuko dugu, su eztian, eta irakiten hasten denean sua amatatuko dugu; estalkia kendu barik 10 minutuan izango dugu jalkitzen. Iragazi, eta zenbat likido dagoen neurtuko dugu: 500 ml bakoitzeko 250 g ezti gehituko dugu; ondo eragingo dugu ezta erabat desegin arte. Saiatu behar dugu nahasia bero-bero ez egoten, eztiaren eta ezkiaren propietate sendagarriak galdu ez daitezen. Nahi izanez gero, koilarakada bat ron edo patar gehitu dezakegu, jarabea hobeto



## Landareak batzeko aholkuak

**Orokorrean:** hartu ondo ezagutzen duzuna, neurritz eta soilik lekuan asko badaude; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik: moztu, ondo hazten jarrai dezaten; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak ba-dira; ez jaso gune babetuetan edo parke naturaletan.

**Non:** larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatueta.

**Noiz:** goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

**Materialak:** eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...

kontserbatzeko. Jarabea botilaratu, eta hozkailuan gorde dezakegu zenbait astetan. Edari honek lagunduko digu gripeari eta hotzeriari aurre egiten: koilarakada txo bat edo bi hartu daitezke egunean hiruzpalau aldiz; bronkitisa badugu, koilarakada txo bat orduero.

Neguan goizero ezki-infusio bat hartuz gero, ondorio osasungarriak nabaritutako ditugu egun osoan zehar. Eskura hurrengo landare siku hauen nahasia izan dezakegu: ezkia, erromeroa, plantaina eta intsusa-loreak; pota batean gordeko ditugu, landare bakoitzeko kantitate bera

ipinita. Hori izerdiarazteko erremedioa da, antiseptikoa eta espasmoaren aurkakoa; gripeari, hotzeriari, samako minari, bronkitisari... aurre egiten ere baliagarria dena.

Bestalde, landare antiseptikoa eta infekzioen eta bakterioen kontrakoa denez, besteak beste, zauriak eta ulterak osatzeko erabiltzen da: gunea oso infusio kontzentratua erabilia garbitu. Era berean, oso erabilgarria da aho-infekzioetarako: infusioa erabilia gargarak egin edo hortzetako ezki-pasta erabilia garbitu.

**Hortzetako ezki-pasta:** nahastuko ditugu hiru koilarakada buztin berde edo zuri, koilarakada bat ezki-hauts mehe (kafe-erota batean ezki-hosto sikuak eho daitezke), itsas gatz mehe apur bat, bi tanta menda-olio esentzial eta bi tanta salbia (aukeran). Osagaiak ondo nahastuko ditugu, olioak eta hautsak ondo uzartu daitezzen. Hortzetako eskuilan apur bat ipini, eta hautsa dagoen moduan erabili dezakegu; bestela, ur destilatua gehitu dezakegu, pasta egiteko (baina aste gutxi iraungo du; hautsak, berriz, gehiago iraungo du, modu egokian kontserbatzen badugu).

## Erabilera kosmetikoak

**Olio:** pote batean ezki-loreak eta hostoren bat ipiniko ditugu eta oliba-olio birjina estra gehituko dugu loreak erabat estali arte; 30 egunean beratzen izango dugu eta potea egunero astinduko dugu; iragazi eta ontziratuko dugu.

Azalaren gaixotasunak arintzeko baliagarria da, esaterako, sarna eta onddoak; baita zorrien kontra ere. Odol-zirkulazioa bizkortzen du, eta erabili daiteke erreumarako, bihurri-tuetarako, lumbagorako, zaintiratuetaarako eta kolpetarako. Intsektuak uxatzeko ere balio du, eskuak eta aurpegia olioz igurtzita.

# Orratzik ez, eskerrik asko!

t: Xabier Diaz / a: Pexels

Umetan, bronkitisa izaten nuen maiz, eta hori dela-eta astero injekzio bat ipintzen zidaten auzoko anbulatorioan. Harrantz gindoazela konturatzen nintzen, farolak eta seinaleak besarkatzen nituen, nire amumen etsipenerako. Denborarekin, odol-emaile egin nintzen, baina horrek ez du esan nahi orratzei beldurrik galdu diedanik.

Eta ez naiz bakarra. Zenbait ikerketaren arabera, ume eta nerabe gehienek beldur hori dute, eta helduen % 60k baino gehiagok, beste baten arabera. Baina dentistarenean minik izan nahi ez badugu, edo polioaren, elgorriaren edo COVIDaren aurkako txertoa hartu nahi badugu, oraingoz ez da beste biderik.

Ez dakit Oxford Unibertsitateko Ingenieria Biomedikoaren Institutuko Darcy Dunn-Lavless doktoregaia gure taldekoa den; hori bai, beldur horri aurre egiteko ikerketan dihardu. Bere metodoa kabitazio deritzon efektu akustikoan datza; soinu uhinen bidez burbuilak sortzean hain zuzen ere. Hasteko, ultrasoinuen bidez sortutako burbuila horiek azalaren zelula hiletan pasabide batzuk zabaltzen di-

tuzte; burbuilek horietan zehar sartu nahi ditugun molekula garraiatuko dituzte; eta bukatzeko, zelula bizien kanpoko mintzak zeharkatuko dituzte.

Prozedura horri esker, posible izango litzateke, adibidez, nahi dugun molekula, sendagaia edo DNA txertoa orratzik erabili barik zeluletara sartzea. Eta dagoneko, hasi dira *in vivo* testak egiten (organismo bizidun baten ehun bizian edo barruan egindako esperimentazioari deritzo; organismo partzial edo hil baten ehunean, ordea, *in vitro* izango litzateke). Lehenengo emaitzen arabera, ohiko injekzio bidez 700 aldiz txerto-molekula gutxiago sartu arren, erantzun immunologikoa nabarmen handiagoa da.

Teknika guztiekin gertatzen den bezala, honek ere bere alde txarra dauka: kabitazioan energia larregi erabiliz gero, zelula eta egiturak apurtzeko arriskua

dago. Horregatik, segurtasun muga non dagoen kalkulatzeko ari dira orain. Energia gutxiegi erabilia, ultrasoinuek eragindako kabitazioa ez litzake eraginkorra izango. Larregi erabilia, kalteak eragingo litzuzke.

Ultrasoinu bidezko kabitazioa, bereziki proposa da DNA bidezko txertoetarako, baina ez digu odola ematean orratzetatik libratuko. Horrela izanda ere, emaile izatera gonbidatzen zaituztet, beldurrik beldur, denon onerako izango baita.



(1) [https://labur.eus/aikor\\_orratzak1](https://labur.eus/aikor_orratzak1) Orenius T, LicPsych, Säilä H, Mikola K, Ristolainen L. Fear of Injections and Needle Phobia Among Children and Adolescents: An Overview of Psychological, Behavioral, and Contextual Factors. SAGE Open Nurs. 2018 Mar 14;4:2377960818759442. doi: 10.1177/2377960818759442. PMID: 33415191; PMID: PMC7774419.

(2) [https://labur.eus/aikor\\_orratzak2](https://labur.eus/aikor_orratzak2) Alsbrooks K, Hoerauf K. Prevalence, causes, impacts, and management of needle phobia: An international survey of a general adult population. PLoS One. 2022 Nov 21;17(11):e0276814. doi: 10.1371/journal.pone.0276814. PMID: 36409734; PMID: PMC9678288.

(3) [https://labur.eus/aikor\\_orratzak3](https://labur.eus/aikor_orratzak3), Wendy Beatty, Needle-free ultrasound vaccine delivery, EurekAlert, 2023/12/03

**ArtileArtean**  
Mungialde, 4 - DERIO  
946 240 343 / 665 702 751  
www.artileartean.com

LIBURUDENDA PAPERDENDA  
**ZAMUDIO**  
EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Gorbea kalea, 5 Tlf. / Faxa:  
48170 ZAMUDIO 94 452 29 10

**IBARRONDO**  
FISIOTERAPIA  
JARRERA-BERREZIKETA  
ESKU-TERAPIA

MITXINE, 3  
48150 SONDIKA  
Tel. 94 453 92 00  
Mugikorra 617 674 202  
Mugikorra 688 601 871  
fisiobarrondo@gmail.com

**ELORRIETA**  
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160  
94 454 03 85  
639 57 98 48 - 639 58 25 47

**Torrealday**

ZURE FINANTZA-OSADUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AMOLUKARITZA



## Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.

a: vietkidsiq.edu



## Gomendioak

### LITERATURA: NAGUSIAK

- Hausnarrean (Txalaparta), Josebe Blanco Alvarez.
- Ura ez baita beti gardena (Elkar), Xabi Lasa.
- Maitasun kapitala (Elkar), Karmele Jaio Eiguren.
- Oso latza izan da (Elkar), Xabier Mendiguren Elizegi.



### LITERATURA: GAZTEAK

- Anna kopek eta dragoiaren bihotza (Erein), Haritz Larrageta.
- Elefante txori-bihotza (Erein), Mariasun Landa Etxebeste



## Sudokua

			1	7				
	1			9		6	2	
		2		3				
	2							
	7	9	6				2	
6					7	1	8	3
			6				1	7
	8			1				9
				4				

5	3	6	2	4	8	9	1	7
9	4	7	1	2	3	8	6	5
7	1	8	5	9	6	3	4	2
3	8	1	7	5	2	9	4	6
4	2	6	8	5	7	9	3	1
6	7	9	4	3	1	2	5	8
1	3	7	9	6	8	5	2	4
8	5	2	1	3	4	9	7	6
9	7	6	2	8	3	4	5	1
4	8	1	7	5	9	3	6	2
3	2	5	4	1	6	7	9	8



**HARATEGIA**  
**ALBERTO**  
Arbolantxa, 4  
Tel.: 944 520 825  
48170 ZAMUDIO

**XURREGOITI**  
**JATETXEA**  
Lauroeta etorbidea, 27  
48180 Lailu-Bizkaia  
T-Faxa: 94 453 24 40  
restauranteaurregoiti.com



**Enaitz**  
TABERNA

Ogitartekoak  
Anoak  
Plater konbinatuak

94 455 42 15  
Garaioltza, 74  
48196 Lezama

## Gabonetako menua

### Osagaiak (lau lagunentzat):

- 500 g kardu (freskoa bada, aurretik garbitu eta egosi)
- 100 g almendra gordin
- 50 g pinazi
- 3 berakatz-atal
- 2 koilarakadatxo arto-irin
- 250 ml esne
- Gatza eta piperbeltz beltza
- Olioia

### Prestatzeko era:

Almendra eta pinaziak ehoko ditugu, eta gorde. Kazola batean olioia ipini, eta berakatz-atalak, txikituta, gorrituko ditugu. Ondoren, arto-irina gehituko dugu, eta minutu batean era-

## Kardua almendra-saltsan

gin. Almendra- eta pinazi-irina bota, eta dena ondo nahasiko dugu. Esnea botako dugu era eragingo dugu harik eta saltsa krematsua lortu arte. Gatza eta piperbeltza bota, eta kardu-zatiak gehituko ditugu; su motelean izango dugu hiru minutuan, eta emeki eragingo dugu, kardo-zatiak saltsaz ondo blaitu daitezten. Saltsa lodi badago, ur apur bat bota dezakegu. Bero-bero aterako dugu mahaira. Nahi izanez gero, pinazi txigortuak erabili ditzakegu platera apaintzeko.



a: Freepik



a: Freepik

## Bakailaoa azalorearekin

### Osagaiak (lau lagunentzat):

- 4 bakailao-trontzo garbi
- Azalore txiki bat
- 2 patata ertain
- 4 berakatz-atal
- 2 tipula
- 2 koilarakadatxo piperrauts gozo
- 10 ml sagar-ozpin edo sagardo
- Gatza
- Olioia
- Perrexil freskoa (txikituta)

### Prestatzeko era:

Azalore-sortak ebaki, garbitu eta sikatuko ditugu. Patatak ere garbituko ditugu, zurutu, eta xerratan ebakiko ditugu. Era berean, tipula juliana eran txikituko dugu, eta berakatzak xafletan moztu. Zartagin batean olioia bota, eta bertan berakatzak

gorrituko ditugu apur bat. Tipula gehituko dugu, eta gatz apur bat; eragin, eta arin frijituko dugu, samur-samur egon arte. Sutatik kenduko dugu, eta ozpina eta piperrautsa gehitu; eragin eta gordeko dugu.

Bestetik, kazola zabal batean ura bertuko dugu. Patatak eta azalorea gehituko ditugu. Gatza bota, estalkia ipini, eta egosten utziko dugu, harik eta patatak eta azalorea samur egon arte (adi ibili beharko dugu, desegin ez daitezten). Ondoren, bakailaoa gehituko dugu, estalkia ipini, eta minutu gutxi batzuetan izango dugu sutan, arraina eginda egon arte. Berakatzak eta piperrautsak botako ditugu, eta kazola mugituko dugu, olio errea kazola osora zabaldu dadin. Sutatik kendu, eta minutu pare batean izango dugu jalkitzen. Perrexilaz apainduko dugu.

**ADARVE KAFETEGIA**

Gosariak  
Plater konbinatuak  
Pintxoak  
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

**auzoKide**  
Finken administratzailea

**LORENA GAMBOA AGUIRRE**

Txorisolo 4, behea B 634 410 470  
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

**PATXI**  
KOOP

PIATZA KOOPERATIBA ELKARTEA  
Nahastur gogoratu: Txorizulo 4, 48150 Sondika (Bizkaia) | Tel: 944.522.287 | info@patxi.coop | www.patxi.coop



# Piku-ogia

## Osagaiak:

- 500 g piku siku
- 50 g intxaur
- 100 g almendra
- 100 g irin
- 5 koilarakada esne
- Kopakada txiki bat anis
- Margarina (moldea igurtzeko)

## Prestatzeko era:

Pikuak eta almendrak txikituko ditugu eta irinarekin nahastuko ditugu katilu batean. Intxaurrak ere txikituko ditugu, eta katilura botu; anisa eta esnea gehituko ditugu. Dena ondo nahastuko dugu. Molde bat margarinaz igurtzi, eta bertara botako dugu nahasia. Aluminio-paperaz estaliko dugu, eta labera sartuko dugu 160 gradutan 30 minutuan. Eginda dagoenean, epeltzen utziko dugu, eta moldetik atera.



a: Freepik

*Ekin ete ekin 35 urtez. Publikoa, Irekia eta guztiontzat*



TXORIERRIKO UDAL  
EUSKALTEGIA



**Aza artean buzkantza,  
Gabonetan alegrantza,  
soldata eta bakantza.  
Urte Berriz esperantza.**

**Eupada bat eta eupada bi:  
berbetan euskara erabili.**

**B. Gandiaga**





# Txorierriko azken albisteak jaso nahi dituzu?



**Bidali ALTA**

**747 406 561**  
telefono zenbakira

**Izan zaitez berriemate ere. Bidali zure argazki, bideo eta berriak.**

Hilero lagun birentzako bazkaria zozkatuko dugu parte-hartzaileen artean (Baserri Antzokian).



*Zorionak eta  
urte barri on!*

